



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko urtarrilaren 28a

5. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, ingurumena babesteko esku hartzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak ([2. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, ingurumena babesteko esku hartzeari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2004ko urriaren 4ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

1. ARTIKULUARI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

1. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. idatz-zatiko g) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa. Jakina da eta esan gabe doa.

2. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“Foru lege honek helburu hauek ditu: Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek zenbait jarduera publiko edo pribatutan esku-hartzea izanen dutela ezartzea eta esku-hartze hori arautzea; halaber, prebentzioa eta babesaren pertsonen segurtasunari eta osasunari begira, eta, horrela, dauden kutsadura moduen prebentzioa, murrizketa eta kontrola, eta ingurumenaren zaintzea eta hobetzea.”

Zioak: Ez da hain testu korapilatsua; soilagoa eta laburragoa da, eta ingurumena osatzen duten elementu guztiak biltzen ditu.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO **DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“hainbat jarduera publiko zein pribaturen” jarri beharrean, “jarduera publiko zein pribatu guztien”

Zioak: Ez dago legearen helburutik at uzterik ingurumenari eragin diezaiokeen inongo jarduerarik.

4. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“a) Zenbait proiektu, plan, programa, jarduera eta instalazioren aurretzeko ingurumen kontrol administratiboa ezartzea.”

Zioak: Administrazio publikoak kontrolatu behar ditu ingurumenean eragina duten jarduketak.

5. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letrako amaiera aldatzeko zuzenketa.

Gaztelaniazko testuan “posteriores” kendu eta haren ordean “posterior” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: “seguimiento” eta “vigilancia” lotuta doaz.

6. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“c) Ingurumen gaitan baimenak emateko eta txostenak egiteko prozedurak antolatzea.”

Zioak: “Erraztea” nahasgarria izan daiteke; izan ere, ingurumen arloko prozeduretan erraztasunak jarri nahi direla uler daiteke.

7. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. idatz-zatiko f) letra aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“f) Zenbait jardueraren ingurumen ikuskapeneko mekanismo eragingarriak finkatzea, legeetara egokitzen direla kontrolatzeko eta ezarritako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna ikuskatzeko.”

Zioak: Soilagoa eta ulergarriagoa da.

8. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa: 2. idatz-zatiko h) letra g) letra izanen da.

Zioak: Aurreko letra desagertu delako.

9. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1.2 artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Beste letra bat gehitzea proposatzen dugu, hau da, beste helburu bat.

“h) Ikerketa sustatzea ingurumen jakintzaren arlo guztietan.”

Zioak: Nahitaezkoa da ikerketa indartzea, are gehiago ingurumenaren arloan, eta administrazioaren esku-hartzeari buruzko lege batek ezin du horren alderdi garrantzitsua ahaztuta, helburuen artean sartu gabe utzi.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

10. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Esan gabe doa. Ez da beharrezkoa.

11. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“1. Foru lege honen menpe geratzen dira eranskinetakoren batean ageri diren titulartasun publiko zein pribatuko plan, programa, proiektu, jarduera eta edozein motako jarduketak,...”

Zioak: Legeak ingurumen-espeditatea behar duten jardueri buruz egiten dituen definizioez gain, helburuak izan behar du inguru horretan egin nahi den edozein jarduketa mota kontrolatzea eta babes eginkizuna gauzatzea. Beraz, legean espre-suki jasota gelditzea komeni da.

12. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2.1 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“eranskinetakoren batean” kendu eta hau proposatzen dugu: Foru lege honen menpe geratzen dira eranskinetakoren batean ageri diren titulartasun publiko zein pribatuko plan, programa, proiektu eta jarduera oro,...”

Zioak: Zioen azalpenean adierazitakoari jarraituz, eranskinetakoak zerrendak dira, baina ez osoak; izan ere, jarduera guztiek, hala oraingoek nola etorkizunekoek, baldin eta Legeak etorkizunik izan nahi badu, Legearen menpean egon behar dute.

13. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluko 1. idatz-zatiko 2. lerroari gehiketa egiteko zuzenketa.

“plan, programa, proiektu eta jarduerak” zerrendari “instalazioak” gehitzea proposatzen da.

Zioak: “instalazioa” oinarritzko elementua da jarduera aurrera eramateko.

**3. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****14. ZUZENKETA****EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Oinarritzkoa da.

15. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa.

Hauxe proposatzen dugu: 3. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letra a) letra izatea.

Zioak: Aurreko letra desagertu delako.

16. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letra aldatzeko zuzenketa.

Hauxe proposatzen dugu: 3. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letra b) letra izanen da.

Zioak: arrazoi beragatik.

17. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..kutsatzen duenak ordaindu behar duela...” esan ordez, hau esan behar du: “..kutsatzen duenak ordaindu eta kutsadura desagerrarazi behar duela...” Zioak: kutsadura desagerrarazteko betebeharra ezartzea.

18. ZUZENKETA**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“1. Nafarroako administrazio publikoen jardueren oinarrian printzipio hauek daude: babesaren printzipioa, prebentzioarena, arreta eta kontuz ibiltzearena, kutsatzen duenak ordaindu eta kutsadura desagerrarazi behar duela dioena...”

Zioak: Administrazioak oinarri hartu behar duen lehen printzipioa, eta, beraz, lege honetan jaso behar dena, babesaren printzipioa da. Era berean, kutsadura desagerrarazteko betebeharra ere jaso behar da; izan ere, sarritan, errazagoa da ordaintzea eta, horrela, eragindako kalteei aurre egin behar ez izatea.

19. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko 1. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa.

3. artikuluko 1. idatz-zatiko amaieran hau gehitzea proposatzen dugu: “eta gardentasunarena eta administrazioaren eraginkortasunarena.”

Zioak: Administrazio publikoak objektibotasunez eta gardentasunez erantzun behar die interes orokorre, eta eraginkortasun irizpideetan oinarrituta jokatu behar du.

20. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluan beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa (bigarren idatz-zatia, horrela, hirugarrena izanen litzateke).

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“2. Administrazio publikoek, era berean, kutsadurari eta gas kutsagarrien emisioari aurrea hartu behar diete neurri egokiak aplikatuz; sortzen diren hondakinak murriztu behar dituzte gutxitze tekniki-

ken bidez eta, hori ezinezkoa den neurrian, egoki kudeatu behar dituzte hondakinok, balorizatuz, eta, azken batean, erabiliz, ingurumenean duten eragina saihestu edo gutxitu dadin, sektoreko legedian ezarritakoarekin bat betiere; administrazio publikoek energia, ura eta lehengaiak modu arrazionalen, eraginkorren eta efizientean erabili behar dituzte, bai eta istripu larriei aurrea hartzeko eta haien eraginak mugatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu ere.”

Zioak: Esku-hartze handiagoa behar da kutsaduraren arloan.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

21. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6.1 a) artikulua aldatzeko zuzenketa.

Lehenbiziko zatia aldatu eta honako testua izan dezala proposatzen dugu:

“Ondokoen egoera eta ezaugarriak: Nafarroako natur baliabideak, azaleko nahiz lurrazpiko urak, airea, lurra, zorupea, hondakinak, zarata, fauna, landaredia, paisaia, energia baliabide naturalak, ondare historikoa, artistikoa, ekologikoa, paleontologikoa, Natura 2000 Sarea eta...”

Zioak: Ez dago jasota informazio sistema batek gure ustez eduki behar duen guztia ingurumen informazioaren gaineko eskubidea erabili ahal izateko; era berean, administrazioarentzat ere baliagarria izanen da modu osoagoan jardun dezan arlo honetan.

22. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6.1 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“1. Ingurumen erregistro bat eratuko da, eta gutxienez hurrengoiei buruz nahikoa datu edukiko duen informazio sistema bat izan beharko du:”

Zioak: Informatzeaz gain gauzak jasota utzi eta kontrolatu egin behar dira.

23. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6.1 a) artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“a) Uren, airearen, lurraren, faunaren, landarediaren, paisaiaren egoera eta kalitatea, horien arteko elkarrekintzak barne.”

Zioak: Implizituki, barruan daude Natura 2000 Sarea eta babes bereziko eremuak.

24. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6.1. b) artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“b) ingurumeneko elementu eta baldintzei eragin dieten zein eragin liezaieketen instalazioak, jarduerak, politikak, planak, programak eta gainarako jarduera publiko eta pribatuak.”

Zioak: Testu osoagoa eta zehatzagoa da.

25. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6.1.e) artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“e) Ingurumen baimenetan eta lizentzietan ezarritako baldintzak, baita eskueran dauden hobekuntza teknikoak, instalazioaren ezaugarri teknikoak, eta haiek zehazteko baliatu diren ingurumenaren tokiko baldintzak.”

Zioak: Teknikoki zuzenagoa da, baimenen araubideari begira.

26. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6.2 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua” jarri ordez, hau jarritzea proposatzen dugu: “ingurumenaren arloko Nafarroako organo eskuduna”

(Zuzenketa hau Legeko testu guztirako izatea proposatzen dugu, hau da, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua ageri den kasu guztietarako).

Zioak: Egokiagoa da, benetan eskumena duen organoari dagokionez.

27. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6.1 c) artikulua aldatzeko zuzenketa. Hau gehitzea proposatzen da: "eta ondare natural nahiz historiko eta kulturala."

Zioak: Badirudi ingurumenak ez duela alderdi hori hartzen, eta argi eta garbi da ingurumenaren parte, bereziki lege integrala egin nahi bada eta ez partziala.

28. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzea proposatzen da, g) letra hain zuzen. Hona testua:

"g) Idatz-zati honetako aurreko letretan aipaturiko informazioa Nafarroako Gobernuaren web gunean jarriko da. Edukia aldian-aldian gaurkotuko da."

Zioak: Herritarren eskura jartzea ingurumenari buruzko informazioa.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

29. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

"Ingurumenaren arloko Nafarroako organo eskudunak irizten badio ingurumen baimena edo ingurumen eraginaren ebaluazioa beharrezko duen proiektu, plan, programa, jarduera edo instalazioaren batek beste autonomia erkidego batean

ingurumen eraginik izan lezakeela, aplikatzekoa den araudian xedatutakoari jaramon eginen zaio."

Zioak: Aukera hori jaso eta aurre egin behar zaio.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

30. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 9. bis, gehitzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

"1. Ingurumen baimenak eta, hala badagokio, ingurumen eraginaren adierazpenak, eduki hau izan beharko du gutxienez:

a) Gai kutsagarrien emisioen muga-balioak; jarduerak zer izaera eta ezaugarri dituen, balio horiek beste parametro edo neurri baliokide batzuek ordezka daitezke.

b) Emisioak tratatzeko eta kontrolatzeko sistema, hauek zehaztuta direla: ustiatze erregimena eta neurketen metodologia, horien maiztasuna, neurketak ebaluatzeko prozedura eta baimenaren edukia betetzen ote den egiaztatzeko beharrezkoak diren datuak ingurumenaren arloko organo eskudunari jakinarazteko betebeharra, maiztasuna zehaztuta.

c) Arruntak ez diren eta ingurumenari eragin diezaioketen ustiapen baldintzei buruzko neurriak, hala nola, besteak beste, hurrengoei buruzkoak: funtzionamenduan jartzea, ihesak, funtzionamendu akatsak, aldi bateko gelditzeak eta ustiapenaren behin betiko ixtea.

d) Beharrezkoa izanez gero, lurzoruaren eta lurrazpiko uren babesa berrmatuko duten aginduek, eta instalazioak sortutako hondakinen kudeaketari buruzko neurriak.

e) Urruneko kutsadura gutxitzeko neurriak, horiek ezartzea egokia bada.

f) Instalazioaren tamainaren arabera, hurrengoei erantzuteko nahikoa berme: baimendutako jardueraren ondoriozko betebeharrei, ingurumena babesteko neurri guztien betetzeari, kaltetutako inguruaren leheneratze lanei eta, beharrezkoa bada, jarduera oker gauzatzearen ondorioz ezarritako zehapenen ordainketari.

g) Baimendutako jarduerak eragindako kalteak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguru-polizak gutxienez estali behar duen zenbatekoa.

h) Jardueraren eraginpean dagoen ingurumena osotara babesteko beste edozein neurri edo baldintza egoki, indarrean dagoen legediarekin bat.

2. Baimenak, halaber, sektoreko legediaren zehaztapenekin bat, hurrengo baldintzak eta prebentzio nahiz kontrol neurriak ezarriko ditu: suteei eta arrisku larriei aurrea hartzeko beharrezkoak direnak eta osasuna babesteko beharrezkoak direnak.

3. Ingurumenaren arloan indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baldintzak iritsi ezinak badira eskura dauden teknikarik hoberenekin, baimenak baldintza osagarriak eskatu beharko ditu; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen beste neurri batzuk ere hartzeko.

4. Baimenak denbora baterako salbuespenak ezar ditzake 1. idatz-zatiko a) letran ezarritako eskakizunetarako, baldin eta ingurumenaren arloko organo eskudunak onetsitako plan edo programa batek eskakizun horien errespetua bermatzen badu sei hilabeteko epean gehienez eta proiektuak kutsaduraren murrizketa badakar.”

Zioak: Ingurumen baimenarentzat eta, hala badagokio, ingurumen eraginaren adierazpenarentzat, hurrengoak ezartzea: gutxienerako edukiak, baldintzak nahiz prebentzio eta kontrol neurriak, bai eta baldintza osagarriak eta denbora baterako salbuespenak ere.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

31. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa. Hau kentzea proposatzen dugu: “produktu zein prozesu berriak ikertu eta garatzera bideratzen direnena izan ezik”

Zioak: Gauza bat da ikerketa indartzea eta beste gauza bat, oso ezberdina, ingurumena babesteko esku-hartzetik kanpo gelditzea; ikerketak eta garapenak, izan ere, izan ditzakete eraginak ingurumenean, eta horiei aurrea hartu behar zaie.

32. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. Proposatzen dugu “nahiz eta ez den zerrenda itxia” jartzea, “jartzen dira” eta “foru lege” artean.

Zioak: Ezin da foru legearen aplikazioa eranski-nerara mugatu; izan ere, orain ez daude jasota ingurumena babesteko esku-hartzearen menpe dauden jarduera guztiak, eta, jakina, epe laburrera ezin izanen da aplikatu, eta are gutxiago jarduera berrientzat.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

33. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11.1 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua” jarri orde, hau jar-tzea proposatzen dugu: “ingurumenaren arloko Nafarroako organoa.”

Zioak: 26. zuzenketako arrazoi bera.

34. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“Aldaketa ez denean funtsezkoa eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hilabeteko epean aurkakorik adierazi ez badu, instalazioa egin ahalko du titularrak.”

Zioak: Ingurumen tramitazioa duten instalazioen aldaketen kontrola titularren esku uzteak ez du zentzurik. Administrazioak kontrolatu eta erabaki behar ditu aldaketak bai eta, hasierako proiektua erreferentzia hartuta, zenbaterainokoak diren aldaketa horiek.

35. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11.2 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua” jarri ordez, hau jarzea proposatzen dugu: “ingurumenaren arloko Nafarroako organoa”.

Zioak: Aipatutako arrazoia.

36. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“erregelamenduz finkatuko dira” esan ordez, hau esan behar du: “erregelamenduz finkatuko dira, foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean”.

Zioak: Erregelamenduzko garapena egiteko epea ezartzea.

37. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“3. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aldaketa funtsezkoztat jotzen duenean...”

Zioak: Ingurumen tramitazioa duten instalazioen aldaketen kontrola titularren esku uzteak ez du zentzurik. Administrazioak kontrolatu eta erabaki behar ditu aldaketak eta, hasierako proiektua erreferentzia hartuta, zenbaterainokoak diren aldaketa.

38. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11.3 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua” jarri ordez, hau jarzea proposatzen dugu: “ingurumenaren arloko Nafarroako organoa”.

Zioak: Aipatutako arrazoia.

12. ARTIKULUARI**AURKEZTURIKO ZUZENKETA****39. ZUZENKETA****EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluko b) letran gehiketa egiteko zuzenketa.

“hondakinak, zarata eta bibrazioak” gehitzea proposatzen dugu. Honela geldituko litzateke b) letra: “Hurrengoak prebenitzea eta murriztea jatorrian, ingurumenak, osoki hartuta, babes maila altua iritsi dezan: baimenaren menpeko jarduera eta instalazioen ondoriozko kutsadura, hondakinak, zarata eta bibrazioak, eta lurrera, uretara eta airea eginiko emisioak.”

Zioak: Zehaztu beharra dago; eragin handia du, izan ere, eta alarma pizten du gizartean.

13. ARTIKULUARI**AURKEZTURIKO ZUZENKETA****40. ZUZENKETA****EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“1. Ezin izanen da ingurumen baimen integratua behar duen instalaziorik eraiki edo jarduerarik egin harik eta baimena eman arte, eta baimen hori menpeko jarduera edo instalazioaren eraikuntzarako, ezarpenerako edo ustiapenerako beharko liratekeen gaineko baimen, lizentzia edo emakiden aurretiazkoa izanen da.”

Zioak: Egokiagoa da, genetikari buruz indarrean dagoen araudiari dagokionez.

14. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

41. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letran kenketa egiteko zuzenketa: "Aldaketa jabari hidrauliko..." jartzen duenetik, amaierara arte.

Zioak: Begi bistakoa da jabari hidrauliko publikora egiten diren isurien baldintzei buruz ari bagara, arroako erakundeak ere parte hartu behar duela. Beraz, ez dago aipatu beharrik.

42. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Begi bistakoa da. Ez dago aipatu beharrik.

43. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa.

"emisioak nabarmen murriztea dagoenean, gehiegizko kosterik ezarri gabe." esan ordez, hau esan behar du: "emisioak nabarmen murriztea dagoenean."

Zioak: Gehiegizko kosteen erreferentzia zehaztasunik gabea, subjektiboa eta alferrekoa da. Teknikarik onenak bideragarriak eta eraginkorrak dira, baldin eta industria edo enpresa eraginkor eta lehiakor batek ekonomikoki finantza baditzake.

44. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa.

1. idatz-zatiko b) letraren aldaketa proposatzen da. Honelaxe geldituko da:

"b) Eskueran dauden teknikarik onenetan aldaketa garrantzitsuak izatearen ondorioz, emisioak nabarmen murriztea dagoenean, administrazioak, titularrarekin batera, horiek ezartzeko modua aztertuko du."

Zioak: Ingurumena babesteko tekniketan gertatzen diren aurrerapenek emakiden gaurkotzea ekarri behar dute. Kostuen irizpidea bakarrik ezartzeak, praktikan, eginiko emakidetan teknika berriak ez aplikatzea ekarriko luke.

45. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran kenketa egiteko zuzenketa.

"Garrantzitsuak" kentzea proposatzen da.

Zioak: Zehaztasunik gabeko kontzeptua da. Nola neurtzen da? "Aldaketa" soila nahikoa da.

46. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa.

"ezarri" kendu eta "ekarri" jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Lapsus bat da. "Ekarri" da aditz egokia.

15. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

47. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluko a) letran kenketa egiteko zuzenketa.

"Geografikoa" hitzetik amaierara arte kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Amaierako hori "gutxienezkotzat" hartzeak ez du zentzurik.

48. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Esan gabe doa. Oinarrizko premisa da “ustiapen baldintza anormalak” eragotzi behar direla.

49. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA**
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa.

a) letraren ordeztu testu hau jartzea proposatzen dugu:

“a) Eskueran dauden teknikarik onenetan oinarritutako emisioen muga-balioak, ingurumenaren tokiko egoera kontuan hartuta.”

Zioak: Kendutako erreferentziek ingurumen baimen integratua emateko behar den eskakizun maila murriztu dezakete.

50. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“b) Emisioen muga-balioak bete daitezzen bermatzeko neurri zuzentzaileak, osasunaren, uraren eta atmosferaren babesa, baita hondakinak sortzeko eta kudeatzeko metodoak ere.”

Zioak: Pertsonak aipatzea funtsezkoa da. Horregatik egin dugu osasunaren aipamen zuzena.

51. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluko f) letra aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“f) Kontrolerako eta informazioa emateko betebeharrak.”

Zioak: Aplikatzekoa den legediarena esan gabe doa.

52. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluko h) letra aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“h) Behar denean, ingurumen eraginaren adierazpena.”

Zioak: 24. artikuluko c) letrarekin bat.

53. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluar beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“b) Baliabide naturalen kontsumoa murrizteko neurriak eta energia eraginkortasuneko neurriak.”

Zioak: Ez da aztarna ekologikoa ahaztu behar.

16. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**54. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA**
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“erregelamenduz finkatuko den” esan ordez, hau esan behar du: “lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean erregelamenduz finkatuko den”.

Zioak: Erregelamenduzko garapena egiteko epea ezartzea.

55. ZUZENKETA**ARALAR**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honelaxe geldituko da:

“Ingurumen baimen integratuaren berriztapena baimena amaitu baino hamar hilabete lehenago eskatu beharko da, eta baimen berri gisa tramitatuko da; Departamentuak, hala ere, ingurumen arazorik ez bada atzeman, baimenaren tramitazioa erraztu ahalko du.”

Zioak: Zortzi urteko ustiapenaren ondotik, zuhurra eta egokia dirudi baimena berritzean erabat berrikustea jardueraren baldintzak eta ingurumen eragina. Jarduerak ez badu ingurumen eraginik izan, jarduerarekin jarraitzeko ebazpena arindu dezake Departamentuak, baina ez dugu inondik ere utzi behar jarduerak ebazpen faltagatik jarrai dezan.

56. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“Ingurumen Departamentuak, betiere, baimena amaitu baino hamar hilabete lehenago jarriko ditu bere kabuz abian ingurumen baimen integratua berritzeko tramiteak, eta erregelamenduz finkatuko den prozedura erraztu baten bidez tramitatuko da.”

Zioak: Berritzea, duen indarraldia dela-eta, ez da tramite hutsa, baizik eta jarduera ororen prebentzioari eta kontrolari begira egiten den zerbait, eta epeen eta prozeduren kontrolak ez du izan behar partikularrari ezarritako zama (gehienak, enpresa txiki eta ertainak), administrazioarentzako zama baizik.

57. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Berriztapen eskariaren ...” esanez hasten denetik amaierara artekoa kentzea proposatzen dugu eta, horren ordez, testu hau jartzea: “Berritzea, betiere, baimenaren indarraldia amaitu aurreko 6 hilabeteetan ebatziko da espresuki, eta, era berean, espresuki ezarri beharko dira berritzearen baldintzak.”

Zioak: Ingurumen baimenaren berriztapena ez dago uzterik 8 urteko epea pasatze soilaren baitan; , ikuskatu eta kontrolatu ondoren, berrikusi eta “berritu” behar da. Eta administrazioaren betebe-

harra da espresuki ebaztea, are gehiago ingurumenari buruzko zerbait denean.

17. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

58. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua” jarri ordez, hau jartzea proposatzen dugu: “ingurumenaren arloko Nafarroako organo eskuduna”.

Zioak: Behin eta berriz ematen ari garen arrazoiak.

18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

59. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikulu horretan jasotakoa ez da beharrezkoa eta, gainera, burokrazia, epe gehiegi eta Departamentuaren diskrezionalitatea eragiten ditu (ez baitago irizpide objektiborik).

60. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa.

19. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

61. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua kentzeko zuzenketa.

Artikulu osoa kentzea proposatzen da, lau idatz-zatiak barne.

Zioak: 2 A eranskinean sartuta dauden eta ingurumen baimen integratua behar duten proiektu publiko zein pribatuek ingurumen eragineko ebaluazioa izan behar dute eta, beraz, ingurumen baimen integratua eskatu behar da, artikulu honetan ezarritako alde zuzeneko tramitea gabe, prozesua beharrik gabe nahastu, burokratizatu eta atzeratu besterik ez baitu egiten.

62. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Jarduera batek, baldin eta gutxienez ingurumen txostena behar duen ala ez galdetu beharrezkoa bada, ez du inola ere gelditu behar administrazioaren ebazpenik eta jakinarazpenik gabe. Nahiz eta administrazioaren ustez kaltegarria ez izan eta ingurumen prozeduraren beharrik ez egon, ebatzi eta jakinarazi egin behar du.

63. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..hamabost eguneko epean ebatziko du...” esan ordez, hau esan behar du: “..berrogeita bost eguneko epean ebatziko du, gehienez...”

Zioak: Epe luzeagoa ezartzea ingurumen eraginaren ebaluazioa egitea ez eskatzeko.

64. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua” jarri ordez, hau jarritza proposatzen dugu: “ingurumenaren arloko Nafarroako organo eskuduna”

Zioak: Esandako arrazoia.

20. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

65. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 1. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ingurumen baimen integratuaren eskakizunak ez du alde zuzeneko tramitazio horren beharrik; udal txostena aurkeztu behar da. Horrela, beharrezkoak ez diren eta oso eraginkorrak ez diren epeak eta egoera burokratikoak saihestuko dira.

66. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 2. idatz-zatiko e) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Begi bistakoa da, baina ezin da alde zuzenetik zehaztu.

67. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa.

Foru lege proiektuko testuaren ordez, ondokoa proposatzen dugu: “Instalazioa non den, toki entitate horren nahitaezko txostena, proiektua hirigintza planarekin bat ote datorren jakiteko. Txostenak bat ez datorrela badio, loteslea izanen da, eta Departamentuak ebazpena eman beharko du prozedura amaitutzat eman eta jarduketak artxibatze-ko.”

Zioak: Udalaren txostena garrantzitsua da, eta, beraz, eskakizunarekin batera aurkeztu behar da, eta, hirigintzari buruzkoa denez, begi bistakoa da nahitaezkoa eta loteslea izan behar duela.

68. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua” jarri ordez, hau jar-tzea proposatzen dugu: “ingurumenaren arloko Nafarroako organo eskuduna”.

Zioak: Esandako arrazoia.

69. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 2. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa.

f) letra gehitzea proposatzen dugu: “Ingurumen eraginaren azterlan bat, foru lege honetako 39. artikuluan ezarritako edukia izanen duena.”

Zioak: Prozedurak ez du nahasgarria izan behar eta argiagoa da eskakizunarekin batera bai-mena ebazteko beharrezkoak diren agiri guztiak aurkeztu behar izatea.

70. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikuluari beste idatz-zati bat, hirugarrena, gehitzea proposatzen dugu. Hona: “Ingurumen baimen integratuak, edukian, ingurumen eragina-ren adierazpena jasoko du, eta adierazpen horrek foru lege honetako 41. artikuluan ezarritako ondo-riok izanen ditu.”

Zioak: Prozedura errazagoa eta zehatzagoa bihurtzeko saioarekin bat, zentzuzkoa da gai hori 24. artikulutik kendu eta artikulua honetara ekar-tzea.

21. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

71. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua” jarri ordez, hau jar-tzea proposatzen dugu: “ingurumenaren arloko Nafarroako organo eskuduna”.

Zioak: Esandako arrazoia.

22. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

72. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

22. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. idatz-zatiak eta 6. idatz-zatiko 2. lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Idatz-zati horietan ezarritako tramiteak korapilatsuak eta errepikakorrek dira, eta ulergarri-agoa eta aplikagarriagoa izan daitekeen eta izan behar duen prozedura bat burokratizatu eta zaildu baizik ez dute egiten.

73. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

22. artikuluko 1. idatz-zatiko amaiera aldatzeko zuzenketa. “Ahal denean” kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Ahal izan behar da.

74. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

22. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenke-ta.

“..hogeita hamar eguneko epea...” esan ordez, hau esan behar du: “..hirurogei eguneko epea...”

Zioak: Jendaurreko informazio epe luzeagoa ezartzea alegazioak egin ahal izateko, ingurumen baimen integratua eskatzeko espedientearen tra-mitazioan.

75. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

22. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenke-ta.

“Epe bera...” dioen lekutik hasi eta amaierara artekoa, hau da, “...prozeduretan ere.” artekoa kendu eta, horren ordez, hau jartzea proposatzen dugu: “Epe horretan, Departamentuak espediente osatzeko beharrezkoak diren txosten guztiak eskatuko ditu: udalarenak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarenak, arroko erakundearenak, etab.”

Zioak: Instruktoreak espediente bere kabuz osa dezan ere balio behar du jendaurreko informazio epeak; horrela, kalitatezko erantzuna eta erantzun laburra emanen zaie eskaera aurkeztu dutenei.

76. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

22. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..erregelamendu bidez zehaztuko dira.” esan ordez, hau esan behar du: “erregelamendu bidez zehaztuko dira foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean”.

Zioak: Erregelamenduzko garapena egiteko epea ezartzea.

23. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

77. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hamar hilabeteko epea beharrean, sei hilabeteko epea ezartzea proposatzen dugu.

Zioak: Prozedura batek ez du lege honen aplikazioaren ondorioz izan behar duen adinako atzerapenik izan behar, eta are gutxiago atzerapena Departamentuak duen epe luzeak sortzen badu.

78. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..gehienez hamar hilabeteko epean.” esan ordez, hau esan behar du: “..gehienez hamaika hilabeteko epean.”

Zioak: Ingurumen baimen integratua eskatzeko espedientearen tramitazioan jendaurreko informazio epea 30 egunez luzatzea proposatzen duen zuzenketarekin bat.

79. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..hamar hilabeteko epe horretan...” esan ordez, hau esan behar du: “..hamaika hilabeteko epe horretan...”

Zioak: Ingurumen baimen integratua eskatzeko espedientearen tramitazioan jendaurreko informazio epea 30 egunez luzatzea proposatzen duen zuzenketarekin bat.

80. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..ezetsizat joko da.” beharrean, honela behar du: “baietsizat jo eta baimena emanda geldituko da”.

Zioak: Europako gomendioei eta Administrazio eta prozedura Legearen gomendioei jarraikiz. Prozedura bat ezarriz gero, eskakizunaren onespeneren aldekoa beharko du eta ez administrazioaren jardura ezaren aldekoa, are gehiago hau bezain gai garrantzitsuan.

81. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

23. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“iraungitza eta inolako ondoriorik gabetzat joko da” esan ordez, hau esanen du: “iraungitze espedientea abiaraziko da, Administrazio eta prozedura Legean ezarritako tramiteak jarraituko baititu.”

Zioak: Iraungipena modu automatikoan gertatzeak, eskubideen mugagarri denez, nahastea eragin dezake hala herritarrengan nola administrazioarengan, eta horretarako prozedura administrazioari buruzko araudian ezarritako tramiteak jarraitzea proposatzen dugu.

**24. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****82. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

24. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Prozedura errazteko aldatu eta kendu direnak aintzat hartuz, artikulua hau, indarrean geldituko litzatekeen zatia hain zuzen, 20. artikuluan dago jasota; kontuan izan behar da, halaber, 2 A eta 2 B eranskinetako jardura guztietarako ingurumen baimen integratua eskatuko dela, ingurumen eraginaren ebaluazioarekin.

**25. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****83. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

25. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Idatz-zati hori osorik kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Ez da egokia administrazioarekin ezberdin jokatzea; aitzitik, administrazioaren jardunak eredugarri izan behar du; kontuan izan behar da,

gainera, proiekturik gehienak administrazioaren menpeko enpresa publikoek prestatu eta/edo gauzatuko dituztela.

84. ZUZENKETA**ASKOTARIKO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

25. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikulu horren bidez, Gobernuak prozedura orokorretik kanpora atera nahi ditu Nafarroako Foru Komunitateko administrazioeko organo batek sustatzen dituen proiektu, instalazio edo jarduerak. Gure ustez, ez dago itzuri egiterik habitatei buruzko 92/43/EEE Zuzentarauan ezarritako prozedurari.

Ez dirudi gainera zentzuzkoa legediaren betetzea zaindu behar duen administrazio publikoak bere burua ingurumen ebaluazio eta kontrolerik kanpo uztea, eta, aldi berean, Nafarroan jarduten duten gainerako eragileek prozedura hori jarraitu behar izatea.

85. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

25. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lege honetako 45. artikuluan ezarritakoa beharrik gabe aipatzen du.

**27. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****86. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

27. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..jendaurreko informazioaren menpe jarri ahal du...” esan ordez, hau esan behar du: “..jendaurreko informazioaren menpe jarriko du...”

Zioak: Departamentuak subjektiboki erabakiko du zein diren ingurumen ukipen handiko kasuak. Kasuren batean hori irizten badio, zentzuzkoa

dirudi jendaurreko informazioaren tramitea ez ego-
tea Departamentuaren iritzi subjektiboaren baitan.

87. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

27. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenke-
ta. Hauxe da testu berria:

“Ingurumen ukipen handienen kasuetan, Ingu-
rumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza
Departamentuak eskaria, bere dokumentazio guz-
tiarekin batera, jendaurreko informazioaren menpe
jarriko du...”

Zioak: Ingurumen ukipeneko prozeduretan, jen-
daurreko informazioaren eta komunikazioaren
printzipioek bermatuta egon behar dute, eta ez
Departamentuaren irizpidearen baitan.

28. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

88. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

28. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenke-
ta.

“ezetsizat joko da.” esan ordez, hau esan
beharko du: “onetsizat jo eta baimena emanda
geldituko da.”

Zioak: Isiltasunak ez du interesdunaren kalte-
garri izan behar; aitzitik, prestasunez jokatzeko eta
prozedurak espresuki ebatzea eskatu behar da.

29. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

89. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluko 3. idatz-zatiaren parte bat ken-
tzeko zuzenketa.

Bigarren esaldia kentzea proposatzen da: “Bes-
tela, (...) izan ezik.”

Zioak: Irekitzeko baimenaren eskaria jakinaraz-
tea erabat beharrezkoa da.

90. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluko 4. idatz-zatia kentzeko zuzenke-
ta.

Zioak: Irekitzeko baimenak mota guztietako
horniketa-konexioak fiskalizatu behar ditu.

91. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenke-
ta.

“..erregelamenduz zehaztuko da.” esan ordez,
hau esan behar du: “erregelamenduz zehaztuko
da foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabete-
ko epean”.

Zioak: Erregelamenduzko garapena egiteko
epea ezartzea.

31. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

92. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

31. artikuluko 2. idatz-zatiko amaiera kentzeko
zuzenketa; zati hau, hain zuzen: “eta onestea
Estatuko administrazio orokorrari dagozkionak.”

Zioak: Zergatik ez Estatuaren eskumenekoak?

93. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

31. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Eskumena Estatuarena izateak edo jar-
duera horrek larrialdi zibileko kontzeptuarekin zeri-
kusia izateak ez du salbuespenik ezarri behar
balizko ingurumen ukipenari buruzko azterlana
egoteari dagokionez. Ingurumenak, izan ere, larri-
aldi egoerak edo Estatu politikak baino iraupen
handiagoa du, eta, beraz, ingurumenaren zaintzak
ez ditu arrazoi horiek izan behar mugagarri.

94. ZUZENKETA**ASKOTARIKO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

31. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

31.2 artikulua. “Ez dira inola ere foru lege honetan araututako ingurumen ebaluazio estrategikoaren menpe jarriko Estatuko administrazio orokorri onestea dagozkion plan eta programak.”

Zioak: Habitategi buruzko 92/43/EEE Zuzentarauak protokolo zehatza du Natura 2000-ri eragiten dioten planak eta proiektuak aztertzeko. Protokolo horretan, interes publikoko egoera berezietarako (osasunarekin eta segurtasun publikoarekin zerikusia dutenentarako, adibidez), baimeak emateko prozedurak jasotzen dira baldin eta Natura 2000 lekuei kalte egin diezaieketen proiektuak badira. Baina prozedura horietan, betiere, jakinarazpena egiten zaio Europako Batzordeari, eta ordain-neurriak hartzen dira.

Inondik ere ez da salbuespenik egiten proiektu horien ebaluazio prozedurei dagokienez, eta administrazioari ere ezin zaio erabakitze askatasuna eman, Zuzentarauan ezarritakoari itzuri eginez. Honetaz ari garela, eta adibide gisa, Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak indarrik gabe utzi zuen Frantziak zenbait proiektu ingurumen eragineko prozeduratik kanpo uzteko zuen asmoa, defentsa nazionalarekin zerikusia zuten proiektuak hain zuzen (2000ko apirilaren 6ko epaia; C-256/98 auzia –“Estatu batek 92/43/EEE Zuzentaraua urratzeari buruz”– ebatzi zuen. Auzi hori Europako Batzordearen eta Frantziako Errepublikaren artekoa izan zen.)

95. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

31. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

1. idatz-zatiaren amaieran jarraian azaltzen den testua gehitzea proposatzen da:

“..baita beren berrikuspenak ere, eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren iritziz eta erregelamenduz ezartzen diren irizpideen arabera ingurumenean eragin kaltegarriak izan ditzaketelako funtsezko-tzat jotzen diren aldaketak, eta betiere izanen dute ebaluazio estrategiko hori, lurzoru ez urbanizagarriaren sailkapenari eragiten badiote.”

Zioak: Beti ebaluazioa izanen dela bermatzea, planaren berrikuspenetan ere bai; aldaketen kasuan, erregelamenduzko garapena egiteko aukera ematea, objektiboagoa, eta, lurzoruaren sailkapena aldatu eta ez urbanizagarri izatetik urbanizagarri edo hiri-lur izatera pasatzen den guztietan, ebaluazioa egitea.

32. ARTIKULUARI**AURKEZTURIKO ZUZENKETA****96. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

32. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

1. idatz-zatian, letra etzanez dauden hitzak gehitzea proposatzen dugu.

“Plan edo programaren sustatzaile publiko zein pribatuak, plana edo programa prestatzen hasten denetik, ingurumenaren aldagaia sartuko du bertan, eta Ingurumen...”

Zioak: Ideia hori funtsezkoa da eraturako sisteman, eta 2001/42 Zuzentarauari (1. art.) erantzuten dio; izan ere, geroztik eginiko ebaluazioak ez du ezertarako balio ingurumen aldagaia ez bada plan guztian txertatu.

33. ARTIKULUARI**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****97. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

33. artikuluko 1. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da egokia prozedurak behar baino gehiago luzatzea; begi bistakoa da alde aurreko kontsultak egiten direla, eta ez dago Legean hori nahitaezkoa dela ezarri beharrik.

98. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

33. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

1. idatz-zatiari honako lerrokada gehitzea proposatzen dugu:

“Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, planaren edo programaren sustatzaile publiko zein pribatuak kontsulta egiten duenean, haren esku jarriko du ingurumen eraginaren azterlana egiteko dagoen ingurumen informazioa; informazio horren erabilera erregela-menduz arautuko da.”

Zioak: Kontsulta egin eta eskura dagoen ingurumen informazioa ematea azterlana egiteko; horrela, Nafarroako ingurumen informazioa eratzten joan ahalko da, irizpideak, hizkerak batuz; eta Legeko 6. artikuluan aipatzen diren informazioak, ezagunak badira eta baldin badaude, ez dira errepikatu beharko.

**34. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****99. ZUZENKETA****ASKOTARIKO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

34. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikulu horren bidez, Gobernuak prozedura orokorretik kanpora atera nahi ditu Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak sustatzen dituen planak edo programak. Gure ustez, ez dago itzuri egiterik habitatei buruzko 92/43/EEE Zuzentarauan ezarritako prozedurari.

Ez dirudi gainera zentzuzkoa legediaren betetzea zaindu behar duen administrazio publikoak bere burua ingurumen ebaluazio eta kontroletik kanpo uztea, eta, aldi berean, Nafarroan jarduten duten gainerako eragileek prozedura hori jarraitu behar izatea.

100. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

34. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“ezezkotzat joko da.” esan ordez, hau esan behar du: “baiezkoztat joko da.”

Zioak: Onespen prozedurak direnean, isiltasunak baiespenaren ondorioak izan behar ditu.

101. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

34. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

1. idatz-zatian, letra etzanez dauden hitzak gehitzea proposatzen dugu.

“1. Prozedura tramitatu ondoren, eta plana edo programa onetsi aurretik edo onestearekin batera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak plan edo programaren ingurumen ondorioen adierazpena emanen du, non plan edo programa onestea komeni den ala ez zehaztuko duen; adierazpenaren edukia, norainokoa eta ondorioak erregelamenduz ezarriko dira. Baiezkoan...”

Zioak: Adierazpena, beti, plana onetsi aurretik edo onestearekin batera –sari gertatuko da– eman dadila.

102. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

34. artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa.

2. idatz-zatiari lerrokada bat gehitzea proposatzen da.

“Bai lurraldearen antolamenduko eta hirigintzako planeamenduko tresnetan, aldeztu aurretik planeamendurako agiriak dituztenetan hain zuzen –aurrerapena, estrategia eta lurraldearen okupazio eredua, besteak beste– eta bai erregelamenduz ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren arabera tramita daitezkeen proiektuetan, ingurumen ondorioen aldeztu aurreko adierazpen bat

egon dadila ezarri ahalko da, planeamenduaren aldez aurreko agiria baino lehen edo horrekin batera, eta ingurumen ondorioen behin betiko adierazpen bat, plana edo programa behin betikoz onetsi aurretik edo onestearekin batera.”

Zioak: Bi urratseko onespren prozesuak dituzten planetan, aldez aurreko adierazpen bat onesteko aukera ematea aurrerapen fasearen eta hasierako onesprenaren ondoren, eta behin betiko adierazpena emanaz ixtea prozedura. Bestela, gerta daiteke azken adierazpena ezinezkoa izatea edo haren ondorioak garrantzirik ez izatea beranduegi heltzeagatik, plana itxita dagoenean alegia.

103. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

34.2 artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa.

Testuari 3 B eranskina gehitu eta honela geldituko da: “Ez da 3 A eta 3 B eranskinetan aipatutako...”

Zioak: Jarduera horiek guztiek ingurumen ondorioen adierazpena behar dute.

104. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

34. artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa.

Idatz-zati bat, zazpigarrena, gehitzea proposatzen dugu:

“7. Erregelamenduz zehaztuko da ingurumen ebaluazio estrategikoaren tramitazioa, plan edo programa bakoitzerako edo plan eta programa multzo bakoitzerako.”

Zioak: Plan edo lurraldearen antolamenduko tresna bakoitzaren edukia eta tramitazioa errege-lamendu bidez garatzeko aukera ematea.

35. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

105. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

35. artikuluko amaiera kentzeko zuzenketa; “ baimena eman...” jartzen duenetik amaierara arte.

Zioak: Arrazoi beragatik.

36. ETA 37. ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

106. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

36. eta 37. artikulua biltzen dituen atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: 3 B eta 3 C eranskinetan dauden proiektuak nahitaez jarri behar dira ingurumen eragineko ebaluazioaren menpe, eta horiek ez dira gainera zerrenda itxiak. Horregatik ez dira egokiak bi artikuluko horiek.

107. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

36. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak aldatzeko zuzenketa.

“Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua” jarri ordez, hau jartzea proposatzen dugu: “ingurumenaren arloko organoa”

Zioak: Esandako arrazoiagatik.

108. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

37. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa. Espediente administratiboan jasota behar du.

109. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

37. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Jarduera batek, baldin eta gutxienez ingurumen txostena behar duen ala ez galdetu beharrekoa bada, ez du inola ere gelditu behar administrazioaren ebazpenik eta jakinarazpenik gabe. Nahiz eta administrazioaren ustez kaltegarria ez izan eta ingurumen prozedura beharrik ez egon, ebatzi eta jakinarazi egin behar du.

110. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

37. artikuluko 3. idatz-zatiko 3. lerroan “ez” kentzeko zuzenketa.

Zioak: Administrazioaren isiltasunak ez ditu salbuespenak eta zeharkako aipamenak izan behar ondorio.

111. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

37. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..hamabost eguneko epean ebatziko du...” esan ordez, hau esan behar du: “..berrogeita bost eguneko epean ebatziko du, gehienez,....”

Zioak: Epe luzeagoa ezartzea ingurumen eraginaren ebaluazioa egitea ez eskatzeko.

**38. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****112. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

38. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. atala” izenburua kentzea, eta, “3 C eranskinen sartutako proiektu publiko zein pribatuen titularrek” jarri ordez, hau jartzea: “3 B eta 3 C eranskinetan sartutako proiektu publiko zein pribatuen

titularrek, nahiz eta horiek ez diren zerrenda itxiak.”

Zioak: 1. atala kendu behar denez, ez da beharrezkoa “2. atala” jartzea. Bestalde, 3 B eta 3 C eranskinetan jasotako jarduera eta proiektu guztiek, bai eta jasota daudenen antzekoak direnak ere, ingurumen eraginaren azterlana beharko dute.

**39. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****113. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

39. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

39. artikuluko idatz-zati horren ordez, testu hau jartzea proposatzen dugu:

“1. Ingurumen eraginaren azterlanaren edukia erregelamenduz zehaztuko da; nolana ere, honako datuak eta agiriak izan beharko ditu gutxienez:

– Proiektuaren deskribapena, kokagunea, aurrez ikusiriko ekintzen zerrenda, bai eta horietako bakoitzak izan ditzakeen ingurumen eraginak, hala prestatzean nola gauzatzean; erabiliko diren materialen deskribapena, hartuko den lurzorua eta desagerrarazi nahiz uki litezkeen baliabide naturalena; hondakinen, isurien, emisioen edo jarduketaren ondoriozko beste edozein elementu kutsagarriren deskribapena –mota, osagaiak, zenbatekoa eta iraunkortasuna–, bai jarduna aldi batekoa denean –obra egiten ari diren bitartean eginen da horien deskribapena–, bai iraunkorra denean –obra eginda eta erabiltzeko moduan dagoela–, eta bereziki hurrengoak aipatuz: zarak, dardarak, usain txarrak, argi edo partikula emisioak, etab.

– Teknikoki bideragarriak diren aukeren azterketa, eta hartutako konponbidearen justifikazioa.

– Ingurumen inbentarioa eta giltzarri diren edo garrantzitsuenak diren elkarrekintza ekologikoen deskribapena; honakoak bildu beharko ditu gutxienez: tokiaren egoeraren azterketa eta obrak egin aurretik toki horrek zituen ingurumen baldintzen azterketa, bai eta lurzorua okupazio motena eta beste baliabide batzuen aprobetxamendua ere, kontuan hartuz hor alde aurretik dauden eta kaltetu ditzakeen jarduerak; ingurumenaren

alderdi, ondasun edo elementu ororen (eremu horretako ekosistemek dituzten giza populazioa, paisaia, fauna, flora eta landaredia, gea, lurzoria, airea, klima, egitura eta funtzioa; ondare historiko eta artistikoa; gizarte-harremanak; eta zaratek, dardarek, usainek, etab. hautsi ditzaketen lasaitasun publikoko egoerak) identifikazioa, errolda, inbentarioa, zenbatzea eta, behar izanez gero, kartografia; unean uneko eta etorkizuneko ingurumen egoera, ebaluatzen ari den proiektuaren ondoriozko jarduketarekin edo gabe, aztertutako aukera bakoitzerako.

– Hurrengoetan izanen dituen eraginen buruzko azterketa eta ebaluazioa: tokiko edo inguruko jarduera ekonomikoan, lurraldeko mugikortasunean eta irisgarritasunean, eta gizarte arloan –enpleguan, zerbitzu publikoetan, etab.

– Eraginen identifikazioa eta balorazioa.

– Neurri babesgarrien eta/edo zuzentzaileen proposamena. Neurri murriztailerik edo ezabatzailelerik ezean, konpentsazio neurriak deskribatu behar dira, hau da, konpontze ekintzak edo, bestela, aipatutako eraginak izan dituen ekintzaren izaera bereko ekintzak, baina kontrako eraginak izanen dituztenak.

– Ingurumen behaketako edo “alarma iraunkorreko” programa, aurreikusiriko babes neurri eta neurri zuzentzaileen betetzea bermatuko duena, hala exekuzioaldian nola funtzionamendu aldian.

– Laburpen edo ondorioen agiri bat, laburra eta argia, jendaurrean jartzean bai adituak bai adituak ez direnek ulertzeko modukoa.

Zioak: Legean jaso nahi dira ingurumen eraginen azterlanak izan behar dituen alderdirik garrantzitsuenak, ingurumen eraginen ebaluazioari buruzko erregelamendua abiapuntu hartuta. Foru Legean laburregi eta zehazgabeegi jasota daude horiek, eta horrek zaildu egiten du prestatu behar duenaren lana eta nolabaiteko “diskrezionalitatea” ematen dio administrazioari.

114. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

39. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..hogeita hamar egunez...” esan ordez, hau esan behar du: “..hirurogei egunez...”

Zioak: Jendaurreko informazio epe luzeagoa ezartzea alegazioak egin ahal izateko ingurumen

eraginaren adierazpena emateko espedientearen tramitazioan.

40. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

115. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

40. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..sei hilabeteko epean eman beharko da...” esan ordez, “...zazpi hilabeteko epean eman beharko da...” esan behar du.

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat etortzea.

116. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

40. artikuluko 2. idatz-zatiko 2. lerroa aldatzeko zuzenketa.

“6 hilabete” ordez “4 hilabete” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Europako Zuzentzarauarekin bat etortzeko.

41. ETA 42. ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

117. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

41. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ingurumena bezalako gai batean desadostasuna gertatu eta ebazteko ahalmena Nafarroako Gobernuaren esku uztea ez da zentzuzkoa.

118. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

42. artikuluko c) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Begi bistakoa da. Ez dago jaso beharrik.

(Izatekotan, indarreko legediak hala agintzen duelako bada, ez du “aldatu ahalko ditu” beharko, baizik eta “aldatu beharko ditu”).

119. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

41. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

41.2 artikulua. “Organo substantiboaren eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren artean desadostasunik balego proiektua egitearen komenigarritasunaren inguruan, edo ingurumen eraginaren adierazpenaren baldintzen edukiaren inguruan, Nafarroako Gobernuak ebatziko luke, eta, horrelakoetan, Habitategi buruzko 92/43/EEE Zuzentarauan ezarritako prozedurari jarraituko lioke.

Zioak: Ez direnean ados jartzen proiektuaren organo sustatzailea eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua, lege proiektuak Nafarroako Gobernuaren esku uzten du gatazkaren konponbidea eta proiektua gauzatzearen edo ez gauzatzearen erabakia. Gure ikuspegitik, jasota gelditu behar du Habitategi buruzko Zuzentzarauko Araudiko 6. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu beharko zaiola, nahitaez bete beharrekoa baita.

120. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

41. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“eta sustatzaileak burutzeko asmoa badauka,...” dioenetik hasi eta amaierara artekoa kendu eta, horren ordez, hau jartzea proposatzen dugu: “adierazpenaren iraungitze prozedura jarriko da abian, Administrazio eta prozedura Legeko prozedura izanen baita, eta han ezarritako ondorioekin.”

Zioak: Iraungitze prozedurak aukera ematen du ukituak azal ditzan eta justifika ditzan proiektua egiteko arrazoiak edo interesak; testua idazteak, aldiz, egokia ez den egoera dakar.

45. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

121. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 45. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 25.3 eta 34.3 artikuluei aurkezturiko zuzenketekin bat.

122. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Administrazioaren jardunak, beste inorenak baino gehiago, eredugarri izan behar du, eta are gehiago gai honetan; horrenbestez, nahitaezkoa dirudi hori kentzea ez ezik, administrazioari beste inori baino behar handiagoa ezartzea.

123. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45. artikulua kentzeko zuzenketa.

(Eta, ondorioz, hurrengo artikuluko guztien zenbakiak aldatuko dira).

Zioak: Arauak denek bete beharrekoak dira, hala administrazioak nola ukitutako pertsona fisiko edo juridikoek.

47. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

124. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

47. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“Aldaketa ez denean funtsezkoa eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hilabeteko epean aurkakorik adierazi ez badu, instalazioa egin ahalko du titularrak.”

Zioak: Ingurumen tramitazioa duten instalazioen aldaketen kontrola titularren esku uzteak ez du zentzurik. Administrazioak kontrolatu eta erabaki behar ditu aldaketak bai eta, hasierako proiektua erreferentzia hartuta, zenbaterainokoak diren aldaketa horiek.

125. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

47. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“erregelamenduz finkatuko dira” esan ordez, hau esan behar du: “erregelamenduz finkatuko dira foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean”.

Zioak: Erregelamenduzko garapena egiteko epea ezartzea.

126. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

47. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“Aldaketa ez denean funtsezkoa eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hilabeteko epean aurkakorik adierazi ez badu, instalazioa egin ahalko du titularrak.”

Zioak: Ingurumen tramitazioa duten instalazioen aldaketen kontrola titularren esku uzteak ez du zentzurik. Administrazioak kontrolatu eta erabaki behar ditu aldaketak bai eta, hasierako proiektua erreferentzia hartuta, zenbaterainokoak diren aldaketa horiek.

52. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

127. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

52. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Jarduera batek, baldin eta gutxienez ingurumen txostena behar duen ala ez galdetu

beharrekoa bada, ez du inola ere gelditu behar administrazioaren ebazpenik eta jakinarazpenik gabe. Nahiz eta administrazioaren ustez kaltegarria ez izan eta ingurumen prozedura beharrik ez egon, ebatzi eta jakinarazi egin behar du.

128. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. atalean, 52. artikuluan eta hurrengoetan, “saikatu” kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dago horien inongo sailkapenik (terminologia zaharkitua).

129. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

52. artikuluko 2. idatz-zatiko 4. lerroan kenketa egiteko zuzenketa. “Ez” kentzea.

Zioak: Ez da beharrezkoa. Ez du ezer gehitzen.

130. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

52. artikuluko 2. idatz-zatian kenketa egiteko zuzenketa. Azken esaldia kentzea.

Zioak: 108. zuzenketan adierazitakoa.

131. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

52. artikuluko 1. idatz-zatiko 2. lerroa aldatzeko zuzenketa.

Gaztelaniazko testuan, “el solicitante” jarri ordez, “el/la solicitante” jartzea.

Zioak: Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna.

132. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

52. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..hamabost eguneko epean.” esan ordez, hau esan behar du: “..berrogeita bost eguneko epean”.

Zioak: Epe luzeagoa ezartzea ingurumen eraginaren ebaluazioa eskatu gabe gelditzeko.

133. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

52. artikulua 4. lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“4. Proiektua ingurumen eraginaren ebaluazioaren menpe jartzea erabakitzen den kasuetan, sustatzaileak ingurumen eraginaren azterlana aurkeztu beharko du, foru lege honen 39. artikuluan finkatutako edukiekin, eta hurrengo artikuluan aurreikusitako prozedurarekin bat tramitatu ahal izan dadin.”

Zioak: Ezin du eperik izan.

53. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

134. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

53. artikuluko a) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: 36. artikulua eta hark zekarrena kenduta, kontraesankorra litzateke, beharrezkoa ez izateaz gainera, letra hori uztea.

135. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

53. artikuluko a) letran kenketa egiteko zuzenketa.

“sailkatu” kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Terminologia zaharkitua.

136. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

53. artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa. Lehenengo lerrokadan, “nahiz eta ez den zerranda itxia” jartzea proposatzen dugu, “..kasuan,” eta “kapitulu honetako..” artean.

Zioak: Gure ustez, legeak iraunkorra izan behar du, eta kasu guztiei aplikatzeko modukoa, eranskinean ez egonda ere hor daudenen antzekoak badira.

54. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

137. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

54. artikulua amaiera kentzeko zuzenketa.

Amaierako “..indarreko araudi sektoriala betetzen dela espresuki justifikatuta.” kentzea.

Zioak: Ezinezkoa da.

138. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

54. artikuluko 3. lerroa aldatzeko zuzenketa.

Gaztelaniazko testuan, “municipio” jarri ordez, “Ayuntamiento” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: “El Ayuntamiento” da organoa, eta ez “el Municipio”.

55. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

139. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

55. artikuluko 3. idatz-zatiaren amaiera kentzeko zuzenketa.

“sailkatua” kentzea.

Zioak: Terminologia zaharkitua.

140. ZUZENKETA**ASKOTARIKO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

55. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

55.1 artikulua. “Lizentzia udal eskumeneko arrazoiengatik, hirigintza planeamenduan zein Udal Ordenantzetan oinarrituz, espresuki ukatu behar denean salbu, alkateak eskaria jendaurreko erakustaldiaren menpe jarriko du, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, hamabost eguneko epean zehar. Era berean, eskaria pertsonalki jakinaraziko zaie jarduera kokatuko den tokiko auzoei, ukitzen dutela irizten diotenen alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Udal konposatueta, kasuan kasuko kontzejuei ere jakinaraziko zaie. Aurkeztutako alegazioak ikusi ondoren, alkateak aipatutako jarduera horren ezarpenaren gaineko txosten arrazoitua egingen du, eta espedientea Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura bideratuko du.”

Zioak: Kontzejuei entzunaldia emateko tramitea bere horretan uztea, Jarduera sailkatuei buruzko Foru Legean egun jasota dagoen moduan.

141. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

55 artikuluko 3. lerroa aldatzeko zuzenketa.

“planeamendu” jarri ordez, “araudi” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Terminologiaren aldetik egokiagoa.

142. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

55. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Proposatutako testuaren ordez honako hau proposatzen da:

“4. Ingurumenaren arloko Nafarroako organo eskudunaren txostenak, besteak beste, eskatutako jarduera instalatzeko proiektuari aplikatzekoak zaizkion neurriak jasoko ditu.”

Zioak: Kutsadura iturri izan daitezkeen guztiak jasotzen ditu.

143. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

55. artikuluko 1. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa.

Hamargarren lerroko puntuaren ondotik testu hau gehitzea proposatzen dugu:

“Udal konposatueta, kasuan kasuko kontzejuei ere jakinaraziko zaie.”

Zioak: Zerikusia duten guztiak entzunaldia izanen dutela ziurtatzea.

144. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

55. artikuluko 4. idatz-zatian gehiketa egiteko zuzenketa.

Hau gehitzea proposatzen dugu: “udalari Departamentuan sartu zenetik gehienez ere hila-beteko epean helaraziko baitzaio.”

Zioak: Departamentuak txostena ahalik eta eperik laburrenean igor diezaion behar du udalak, bai udal administrazioaren kudeaketa errazteko, bai interesdunari dagokionez.

**56. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****145. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

56. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“ezetsizat” jarri ordez, “emantzat” jartzea.

Zioak: Administrazio-isiltasunaren bidezko baiespena aplikatzea (30/1992 eta 4/1999 legeak).

57. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

146. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

57. artikulua kentzeko zuzenketa, bai eta hau ere: III. tituluko I. kapituluko 4. ataleko 2. azpiatala.

Zioak: 4 D eranskinean deskribatutako jardueren garrantzia eta arriskua ikusita, jarduera horiei buruzko txostena egin beharko luke ingurumenaren arloko Nafarroako organo eskudunak.

147. ZUZENKETA

ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

57. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

57.1 artikulua. “Erregelamenduz salbuesten ez bada, 4 D eranskinean jasotako jarduera sailkatuen instalazioek jardueraren lizentzia beharko dute.

Lizentziaren eskaria, jarduera zein herritan kokatu behar den, hango udalari zuzenduko zaio, erregelamenduz zehaztutako dokumentazioarekin batera.”

Zioak: Jarduera baterako jardueraren lizentzia eskatzen bada, toki eta foru administrazioek hartuko dute esku, bien artean banatutako eskumena baita hori, eta, beraz, ezin da ordeztu bi administrazio horien esku-hartzea. Aurrekoarekin bat, zenbait jardueratarako Ingurumen Departamentuaren txostenik behar ez izateak ez du esan nahi Foru Komunitateko administrazioak ez duenik esku hartu behar, baizik eta administrazioaren departamentu jakin batek ez duela esku hartu behar; izan ere, jardueraren arabera erabakiko da zein izanen diren esku hartuko duten departamentuak.

Aurrekoa, hala ere, ez da eragozpen izanen zenbait jarduera lizentzia hori lortu behar izatetik salbuesteko –baldintza batzuk daudenean edo maila jakin batzuk ez direnean gainditzen–; hala gertatzen da gaur egun jarduera kaltegabeen araubidearekin. Horretarako, legean jasota utzi behar da aukera hori, erregelamenduz ezarri ahal izateko 4 D eranskineko zer gaik ez duten jardueraren lizentziarik behar.

148. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

57. artikulua 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordezteko proposatzen dugu:

“4 D eranskinean jasotako jarduera sailkatuak instalatzeko, jardueraren lizentzia beharko da, erregelamenduz ezarritako kasuetan izan ezik.

Horretarako, lizentziaren eskaria, jarduera sailkatua zein herritan kokatu behar den, hango udalari zuzenduko zaio, erregelamenduz zehaztutako dokumentazioarekin batera.”

Zioak: Gure ustez, lizentzia hori lortu behar izatetik salbueste daitezke zenbait jarduera –baldintza batzuk daudenean edo maila jakin batzuk ez direnean gainditzen–; hala gertatzen da gaur egun jarduera kaltegabeen araubidearekin. Horretarako, legean jasota utzi behar da aukera hori, erregelamenduz ezarri ahal izateko 4 D eranskineko zer gaik ez duten jardueraren lizentziarik behar.

149. ZUZENKETA

ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

57. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

57.3 artikulua. “Alkateak espediente Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari bidaliko dio, eta Departamentuak 55. artikulua 2. idatz-zatiak hizpide dituen Foru Komunitateko administrazioaren organoen txosten nahitaezko eta lotesleak eskatu eta alkateari helaraziko dizkio, pertsonentzat nahiz haien osasunarentzat arriskutsuak diren jarduerak direlako.”

Zioak: Proposatzen dugun zuzenketarekin nahi duguna da jarduera sailkatuari buruzko espediente batean Osasun edo Lehendakaritza departamentuek eginiko txostenak ez beti izatea nahitaezkoak eta lotesleak; aldiz, 4 D eranskinean jasotako jardueretan txosten horiek beharrezkoak dira, non eta, aurreko zuzenketarekin bat, jarduera sailkatuaren lizentzia lortu behar izatetik ez diren salbuesten erregelamendu bidez.

Zuzenketa honen oinarria da Foru Komunitateko administrazioak gai honetan duen eskumena; eskumen horrek ezinezkoa egiten du foru administrazioaren desagerpena jarduera sailkatuei buruz-

ko espediente batean, eta desagertzen hori proposatzen da artikuluko horretan osasunarentzat edo segurtasunarentzat arriskurik ez dutela jotzen den jardueretarako.

150. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

57. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

57. artikuluko 3. idatz-zatiaren ordeztu, testu hau jartzea proposatzen dugu:

“3. Alkateak espediente Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari bidaliko dio, eta Departamentuak 55. artikuluko 2. idatz-zatiak hizpide dituen Foru Komunitateko administrazioaren organoen txosten nahitaezko eta lotesleak eskatu eta alkateari helaraziko dizkio, pertsonentzat nahiz haien osasunarentzat arriskutsuak diren jarduerak baitira.”

Zioak: Proposatzen dugun zuzenketarekin nahi duguna da jarduera sailkatuari buruzko espediente batean Osasun edo Lehendakaritza departamentuekin txostenak ez beti izatea nahitaezkoak eta lotesleak; halakoak behar dute, aldiz, 4 D eranskinean jasotako jarduerak, non eta, aurreko zuzenketarekin bat, jarduera sailkatuaren lizentzia lortu behar izatetik ez diren salbuesten erregulamentu bidez. Bestalde, Foru Komunitateko administrazioaren organoen aipamena zuzentzen da; izan ere, proiektuak 57. artikuluko 2. idatz-zatia aipatzen du, eta 55. artikuluko 2. idatz-zatia da.

151. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

57. artikuluko 1. idatz-zatiko 3. lerroa aldatzeko zuzenketa.

Gaztelaniazko testuan, “municipio” jarri ordeztu, “Ayuntamiento” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: “Ayuntamiento” da organo administrati-boa, eta ez “Municipio”.

152. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

57. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatien artean beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

57. artikulua; idatz-zati berria: “Txosten horiek lotesleak izanen dira lizentzia ukatzea zein neurri zuzentzaileak ezartzea dakartenean.

Txostenak bat ez datozenean, Nafarroako Gobernuak ebatzi beharko du lizentzia eman behar den ala ez.”

Zioak: Foru administrazioaren esku-hartzeak, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren txostena behar duten jarduera sailkatuetan bezala, esku-hartze bakarra eta loteslea izan behar du udal administrazioarentzat.

Ezarri beharra dago, horregatik, Osasun eta Lehendakaritza departamentuen txostenak lotesleak izanen direla, eta txosten horiek bat ez etortzea ere aurreikusi beharra dago.

153. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

57. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

57.4 artikulua. “Txostenak jaso ondoren, alkateak lizentziaren baiespena ala ezespina dokumentazio osoarekin batera aurkeztutako eskaria aurkeztu denetik lau hilabeteko epean ebatzi eta jakinarazi beharko du.”

Zioak: 57. artikuluko aurreko idatz-zatiei aurkezturiko zuzenketekin bat, txostenen nahitaezotasuna ezartzen baitute.

154. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

57. artikuluko 6. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“ezetsizat” jarri ordeztu, “emantzat” jartzea.

Zioak: Administrazio-isiltasunaren bidezko baiespena aplikatzea

155. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

57. artikuluari beste idatz-zati bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Txosten horiek lotesleak izanen dira lizentzia ukatzea zein neurri zuzentzaileak ezartzea dakarrenean.”

Zioak: Funtsezkotzat jotzen dugu foru administrazioaren esku-hartzea, jarduera sailkatuetan bezala, non Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren txostena behar baita. Horregatik, ezarri beharra dago txostenak lotesleak izanen direla.

156. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

57. artikuluko 5. eta 6. idatz-zatiei aurkezturiko zuzenketa, aurreko zuzenketen ondorioz 6. eta 7. idatz-zatiak izatera pasako bailirateke.

Gainera, 5. idatz-zati berrian hau kentzea proposatzen dugu: “Kasuan-kasuan egindako txostenak jaso ondoren”

Zioak: Aurreko zuzenketen ondorioz txostenak nahitaezkoak dira.

**58. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****157. ZUZENKETA****EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

58. artikuluko 4. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Izatekotan, jardueraren funtzionamendu egokia egiaztatzeko izanen da beharrezkoa.

**60. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****158. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

60. artikuluko 3. idatz-zatian kenketa egiteko zuzenketa.

Hirugarren lerroaren amaieran hau kentzea proposatzen dugu: “kasuan-kasuan”

Zioak: 4 D eranskinetako jarduerekin zerikusia duten departamentuen nahitaezko esku-hartzearen ondorio da zuzenketa.

159. ZUZENKETA**ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

60. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

60.3 artikulua: “4 D eranskinetako jardueren ikuskapena haiek kokatuta dauden herrietako udalei eta txosten lotesleak egin dituzten departamentuei dagokie, txosten horietan jasotako alderdiei buruz.”

Zioak: 4 D eranskinetako jarduerekin zerikusia duten departamentuen nahitaezko esku-hartzearen ondorio da zuzenketa.

**61. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****160. ZUZENKETA****EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

61. artikuluko 1. idatz-zatiaren amaieran hau kentzeko zuzenketa: “; bai ohikoak bai ez-ohikoak.”

Zioak: Ez-ohikoak ezin dira planifikatu.

161. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

61. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“aurretiaz” jarri orde, hau jartzea proposatzen dugu: “urteko lehenbiziko hiruhilekoan”.

Zioak: Plangintzan epeak jarri beharra dago; zaila da, bestela, plangintzaz hitz egitea.

**62. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

162. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

62. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, ingurumen behaketaren eginkizunak pribatizatzek ez du bermatuko eginkizun publiko garrantzitsu hori egoki egingen denik.

**63. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

163. ZUZENKETA

**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

62. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ateak irekitzen zaizkio behaketa-jarduketak pribatizatzeko aukerari. Bermeak, gaitasuna eta filosofia oinarri, behaketa, gure ustez, foru administrazioak egin beharrekoa da.

164. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

62. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Agintaritza-eginkizunak administrazioarenak berarenak diren langileek egin beharrekoak dira, horrelako gai batean –behatzea eta zehatzea– independentzia eta objektibotasuna bermatzen baitu horrek.

165. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

62. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..ingurumen ikuskapenerako eskumenetan aritzeko ingurumen ikuskapeneko berariazko organoa eratu ahalko da, erregelamenduz,...” esan orde, hau esan behar du: “..ikuskapenerako eskumenetan aritzeko ingurumen ikuskapeneko berariazko organoa eratuko da, erregelamenduz arautuko baita foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean...”

Zioak: Ingurumen ikuskapenerako organo bat sortu behar da.

**65. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

166. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

65. artikuluko 2. idatz-zatian gehiketa egiteko zuzenketa.

2. idatz-zatiaren amaieran hau gehitzea proposatzen dugu: “ bai eta zaratenak eta bibrazioenak ere beharrezkoa bada.”

Zioak: Kutsadura mota hori ezagutu beharra dago.

**67. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

167. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

67. artikuluko 6. idatz-zatiko 6. lerroa aldatzeko zuzenketa.

“eman dezake” kendu eta “emanen du” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Ez da aukerakoa.

168. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

67. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letraren amaiera aldatzeko zuzenketa.

“hiru hilabete” ordeztuz, “hilabete” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: epe luzeegia.

169. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

67. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“eta, behar izanez gero, onespenez edo baimen substantiboa berrikusiz.” kentzea proposatzen dugu, eta, horren ordeztuz, hau jartzea: “hilabete epean, eta epe hori pasatutakoan, jarduera etete-ko agindu ahalko da, aurreko eta ondoko artikuluetan ezarritako irizpideak aplikatuz.”

Zioak: Ingurumen eraginaren adierazpena exekutatzeko eta betetzeko dela bermatu nahi bada, neurri egokiak jarri beharra dago, objektibatu ezin den iritzien baten baitan utzi gabe baimenaren jarraipena.

**69. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****170. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

69. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“jarri ahalko du” jarri ordeztuz, hau jartzea proposatzen dugu: “jarri beharko du.”

Zioak: Erantzukizun zibileko fidantzak eta/edo politikak nahitaezkoa izatea ezarri beharko litzateke, eta erregelamenduz zehaztu zer baimenetan den beharrezkoa; hori zehazten ez den bitartean, nabarmena da bermatuta egon behar duela kalteak konpontzeko edo gutxitzeko neurriak indar handiagoz eskatuko direla.

**70. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****171. ZUZENKETA****EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

70. artikuluko 1. idatz-zatiko amaiera aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“sei hilabete” jarri ordeztuz “bi hilabete” jartzea.

Zioak: Epe luzeegia.

172. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

70. artikuluko 2. idatz-zatiko 2. lerroa aldatzeko zuzenketa.

Gaztelaniazko testuan, “Municipio” jarri ordeztuz, “Ayuntamiento” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: “Ayuntamiento” da organo administratiboa, eta ez “municipio”.

**72. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****173. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

72. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“egintza subsidiario horren ondoriozko gastuak premiazko bidetik eskatu ahalko ditu” jarri ordeztuz, hau jartzea: “egintza subsidiario horren ondoriozko gastuak erantzukizun zibileko fidantza eta/edo polizaren kargu eta premiamendu-bidetik eskatu ahalko ditu.”

Zioak: Administrazioak bermatuta behar du agindua subsidiarioi gauzatzeko aukera; premiamendu-bidea aukeretako bat besterik ez da, eta ez fidagarriena.

**73. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

174. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

73. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“Artikulu honek (...) prozeduraren bidez zehaztu ahalko dira. Zehaztaper hori lehenbailehen egingen da, kontuan hartuz kalteek babes bereziko eremu-
ei eragiten dien; hala bada, akzioa lehenbailehen gauzatu beharko da.”

Zioak: Lege proiektuan ezarrita dagoen 15 urteko epeak ez du bermatzen eta ez dio erantzuten ingurumenaren leheneratzearen printzipioari. Ingurumenari eragindako kalteak arautzeak eskatzen du administrazioak, legea urratzen den kasuetan, kaltetutakoa leheneratzeko akzioak lehenbailehen gauzatzea. Ingurumenean eragindako kalteak konpontzeko –lurren, uren, basoen eta abarren kutsadura– hamabost urte itxaron behar izatea zaila izanen litzateke justifikatzen.

175. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

73. artikuluko 6. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“gastuak ere” dioen lekutik amaierara artekoa kendu eta, horren orde, hau jartzea: “erantzukizun zibileko fidantza eta/edo polizaren kargu eta premiamendu-bidetik eskatu ahalko ditu.”

Zioak: Aldarazi den errealtate fisikoa leheneratzeko eta kalte-ordainak emateko erabili behar den jarduera motaren arabera, jarduketa aukera bat baino gehiago aurreikusi behar da administrazioarentzat, eta ez bakarrik premiamendu-bidea, zenbaitetan ez baita baliagarria, kaudimengabeen gabeen kasuan adibidez.

176. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

73. artikuluko 1. idatz-zatian gehiketa egiteko zuzenketa.

Idatz-zatiaren amaieran, “kalterik gabe” eta gero, hau gehitzea: “erregelamenduz ezarri eta zehaztuko baitira.”

Zioak: Ez direnez zehazten eta objektibatzen aldarazitako errealtate fisikoa leheneratzeko bete-beharra benetakoa eta eraginkorra izateko irizpideak, zehaztaper horiek erregelamenduz egin daitezen nahi dugu.

177. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

73. artikuluko 2. idatz-zatian gehiketa egiteko zuzenketa.

Idatz-zatiaren amaieran, “epea zehaztuz” eta gero, hau gehitzea: “erregelamenduz ezarritakoa-
rekin bat.”

Zioak: Aurreko idatz-zatian gehitutakoa oinarri, eta kontraesanik ez dadin gerta, idatz-zati honetan ere alde aurretik erregelamenduz arautzea ezartzen da, Departamentuak ondoren izanen duen jarduna objektibatuta egon dadin.

178. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bat, 73. bis, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen dugun 73. bis artikulua:

“73. bis artikulua. Ingurumenaren foru banku bat sortzea.

1. Nafarroako Gobernuak ingurumenaren foru banku bat sortuko du Ingurumen Departamentuaren barrenean, diru iturri izanen dituena zehapenak, fidantzak, erantzukizun zibileko polizak eta, behar izanez gero, Lurraldearen Antolamendu eta Ingurumen Departamentuaren transferentziak. Banku horren xedea izanen da foru lege honetan jasotako ingurumen neurriak gauzatzeko baliabideak errentagarri egin eta erabiltzea, eta ingurumen ikerketa sustatzeko ekintzak egitea, eskura dauden hobekuntza teknikoei dagokienez batez ere.

2. Zerbitzu horren eginkizuna izanen da entitate publiko nahiz pribatuak, gizarte erakundeak eta unibertsitateak koordinatzea ingurumen ikerketaren inguruko saiakuntzei eta garapen berriei dago-
kienez, eta, horrela, gizartearen eta kaltetutako

eragile sozial eta ekonomikoen zerbitzura jartzen ahal diren baliabide berriak sortzea.

Zioak: Ikerkuntza –eta begi bistakoa da nazio-arteko eta Europako legediei begiratuta– funtsezkoa da ingurumen arloko jarduketarako, eta, beraz, zehapenek, isunek, fidantzek eta abarrek eragiten dituzten dirusarrerek, legean ezarrita ez dagoenez, helburu horretara espresuki bideratuta, eta helburu horren zerbitzura egon behar dute.

75. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

179. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

75. artikuluko 2. idatz-zatiko b), c) eta g) letretan gehiketa egiteko zuzenketa.

Hiru idatz-zatietan hau gehitzea proposatzen dugu: “erregelamenduz zehaztutakoarekin bat.”

Zioak: Ez-betetze larria arau-hauste larria dela esatea tautologia da; kalifikazio hori eta kasuak legean zehaztu behar ziren, baina halakorik egin ez denez, erregelamenduz objektibatu beharra dago, benetan aplikagarria izan dadin.

180. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

75. artikuluko 3. idatz-zatiko b) eta c) letretan gehiketa egiteko zuzenketa.

Hau gehitzea proposatzen dugu: “erregelamenduz garatutakoarekin bat.”

Zioak: Arau-hauste larriekin gertatzen den bezala, zehaztu beharra dago bi idatz-zatietan zer den arau-hauste arina, eta foru legeak ez duenez egin, eta Departamentuak aplikatu ahal izan dezan, erregelamenduz egitea proposatzen dugu.

76. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

181. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

76. artikuluko 1. idatz-zatiko a), b) eta c) letrak aldatzeko zuzenketa. Artikulua honela geldituko litzateke:

“Foru lege honetan aurreikusitako arau-haustekak preskribitutako dira:

a) Arau-hauste oso larriak direnean, 10 urteren buruan.

b) Arau-hauste larriak direnean, 6 urteren buruan.

b) Arau-hauste arinak direnean, 2 urteren buruan.

Zioak: Abiapuntu hartuta arau-hausteeak preskripzio eperik ez luketela izan behar, lege proiektuan ezarritako epeak laburregiak dira erabat, eta, berez, arau-hausleentzat abantaila lirateke.

182. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

76. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteen preskripzio epea arau-haustea egin dela jakiten den unetik hasiko da zenbatzen.”

Zioak: Arau-haustea ezkutatzea ezin daiteke inola ere arau-hauslearentzako abantaila bihurtu. Horregatik, preskripzio epeak ez du proiektuan jasota dagoen bezala izan behar, baizik eta administrazioak noiz jakiten duten arau-haustea gertatu dela, preskripzio-epea ordutik aurrera hasiko da kontatzen.

77. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

183. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

77. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

c) letra b) letraren aurretik jartzea proposatzen dugu; c) letra, beraz, b) letra izatera pasako litzateke, eta alderantziz.

Zioak: Lehenengo aldiz batez itxi beharko da eta gero behin betiko.

78. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

184. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

78. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau proposatzen dugu:

1) “zabaldu ahalko dira” kendu eta “zabalduko dira” jartzea proposatzen dugu.

2) “egoki irizten zaien hedabideetan” kendu eta “ofizialki hala egin beharreko hedabideetan eta Nafarroako Foru Komunitatean hedapen gehien duen egunkarietako batean”.

Zioak: Ahal den neurrian, zehaztugabetasuna saihestu behar da, segurtasun juridikoa helburu.

185. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

78. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“1. Arau-hauste larri eta oso larriengatik (...) egoki irizten zaien irispide publikoko hedabideetan zabaldu ahalko dira.”

Zioak: Zehapenen argitalpena gizarteari ezagutzera emateko asmoz egin behar da. Horretarako, gizarteak eskuragarri dituen hedabideetan argitaratu behar da.

79. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

186. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

79. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zehapenek ez dute preskribitu behar. Administrazioak betearaziko direla bermatu behar du.

81. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

187. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA

NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

81. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Artikulua ondokoa dioen testu batekin ordeztea proposatzen dugu:

81. artikulua. Ordezko ingurumen prestazioa.

Zigor edo administrazio zehapena gorabehera, arau-hausleak gauzak arau-haustearen aurretik zeuden bezala jarri beharko ditu, berriz jarriz edo konponduz, eta, beharrezkoa bada, eragindako kalteen ordaina eman beharko du.

Arau-hausleak ez dituen gauzak berriz jartzen edo konpontzen, erakunde eskudunak isun hertsatzaileak jarri ahalko ditu.”

Zioak: 16/2002 Legean ezarritakoa jasotzea.

82. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

188. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO

DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 82. bis, gehitzeko zuzenketa.

Artikuluak “Kontratatzeko debekua” izanen du izenburua.

“Arau-hauste larri eta oso larriak egiteagatik zehapena jaso duten pertsona fisikoek nahiz juridikoek ezin izanen dute Nafarroako administrazio publikoen ez kontraturik ez dirulaguntzarik jaso harik eta beharrezko neurri zuzentzaileak eta zehapena bete arte.”

Zioak: Begi bistakoa dirudi debeku hori jaso beharra dagoela, ekiditeko, horrela, ez betetze larri edo oso larriak egin eta gainera dirulaguntzak jasoko direla edo administrazio publikoarekiko kontratuak eginen direla; helburua da enpresek

seriotasunez jokatzea ingurumen araudiaren errespetuari dagokionez.

84. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

189. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

84. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“2. Zehapen prozedurari amaiera emateko ebazpena arrazoituta egonen da, eta espedientean planteatutako auzi eta gai guztiak ebatziko ditu. Ebazpena prozedura hasi eta gehienez sei hilabeteren buruan eman eta jakinarazi beharko zaie interesdunei.”

Zioak: Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean, epe bat ezartzen denean –administrazio isiltasuna eraginen duena edota administrazio prozeduraren iraungipena–, epearen barruan sartzan da ez bakarrik ebazpenaren onespina, baizik eta baita interesdunentzako jakinarazpena ere.

XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

190. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa; hirugarren xedapen gehigarria izanen da. Hona izenburua eta edukia:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Tasak ezartzea.

Urtebeteko epea ezartzen da Nafarroako Gobernuak, organo eskudunaren bidez, eta Lurraldearen Antolamendu, eta Ingurumen Departamentuak proposatuta, Foru Komunitateko administrazioak kobratuko dituen tasak ezar ditzan; hona zer dela eta kobratuko diren tasak:

1. Ingurumen baimen integratua emateagatik edo ukatzeagatik.

2. Ingurumen baimen integratua berritzeagatik.
3. Ingurumen ukipenatarako baimena emateagatik.
4. Ingurumen ondorioen adierazpena egiteagatik.
5. Ingurumen eraginaren adierazpena egiteagatik.
6. Ingurumen arloko esku-hartzea behar duten jarduerak ikuskatzeagatik.
7. Baimen edo lizentziarik gabeko jarduerak legeztatzeagatik.

Zioak: Beharrezko baliabideak izan behar direnez foru legearen helburuak betetzeko, egokia da baita ere tasak ezartzea; horrela, egin beharreko azterketa ekonomikoak egin ondoren, jarduera horretarako bereziki antolatutako zerbitzua eskatzen duenak jarduketa horrek eragiten dituen kostuak ordainduko ditu.

191. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“Hirugarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuak, urtero, aurreko ekitaldian emandako baimen guztiak xehetasunez bilduko dituen txostena aurkeztuko du Nafarroako Parlamentuan. Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak eskatzen badio, urteko txosten horretan ageri diren baimen eta/edo ebaluazioak berrikusi beharko ditu eta, behar izanez gero, indarrrik gabe utzi.”

Zioak: Nafarroako Parlamentuak gai honetan administrazioaren erabakien gainean izan behar duen kontrola jasotzea.

192. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“Laugarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuaren esku uzten da ingurumen organo eskudunari giza eta gauza baliabide

nahikoa ematea foru lege honen aplikazio egokiari begira.

Zioak: Beharrezkoa da.

XEDAPEN IRAGANKORREI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

193. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

Foru lege (...) araudiaren menpe egoten segituko dute, eta lehenbiziko xedapen iragankorra aplikatuko zaie."

Zioak: Lehendik zeuden jarduera edo instalazioak bezala, tramitatzen ari direnak ere ingurumen baimen integratua eskatu beharko dute epe berean.

AZKEN XEDAPENEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

194. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Beste azken xedapen bat, bigarrena izanen baita, gehitzeko zuzenketa; azken xedapenetan bigarrena, hirugarrena eta laugarrena direnak, horrela, azken xedapenetan hirugarrena, laugarrena eta bosgarrena izanen dira.

Hona xedapen berri hori:

Azken xedapenetan bigarrena. Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 117., 118. eta 119. artikuluen aldaketa.

1. Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 117. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra honela geldituko da:

a) Sustatzaileak bere eskaera aurkeztuko dio, zein udalerritan ezarri edo garatu behar duen jarduera, bertan eskuduna den udalari, eta harekin batera behar diren agiri guztiak, bai eta, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko Foru Legean ingurumen arloan esku hartzeko arautzen diren

tresnaren bat behar duten jardueren kasuan, ingurumen eraginaren azterlana edo foru lege horretan eskatutako dokumentazioa, jarduerak ingurumenean duen eragina eta proposatutako neurri zuzentzaileak deskribatzen dituen hain zuzen.

2. Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 118. artikuluari beste idatz-zati bat, bigarrena izanen dena, gehitu eta honela geldituko da:

"2. Jarduera eta erabilerak ingurumen baimen integratua behar duten kasuetan, haiek baimentzeko ez da aplikatuko..

3. Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 119. artikuluko h) letra honela geldituko da:

"h) Ingurumen eraginaren azterlana edo Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko Foru Legean eskatutako dokumentazioa, jarduerak ingurumenean duen eragina eta proposatutako neurri zuzentzaileak deskribatzen dituen hain zuzen."

Zioak: Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 117 eta 119. artikulua aldatzearen helburua da aurkeztu beharreko dokumentazioa bateratzea; hau da, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko Foru Legean ingurumen baimenetarako eta kontroletarako eskatzen den dokumentazioa irizpide hartu eta lurzoru ez urbanizagarrian jarduera baimentzeko aurkeztu behar den dokumentazioa horretara egokitzea.

118. artikulua aldatuta, ez dago jarduera baimena eskatu beharrik lurzoru ez urbanizagarrian baldin eta jarduerak eta erabilerek ingurumen baimen integratua behar badute; izan ere, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko Foru Legeko 12 a) artikuluekin bat, ingurumen baimen integratu horren baitan dagoen baimenetako bat da jarduera baimena lurzoru ez urbanizagarrian.

195. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako hirugarrenari gehiketa egiteko zuzenketa. Testua hau gehitzea proposatzen da:

"foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean gehienez ere."

Zioak: Erregelamendu bidezko garapenak foru legearen eraginkortasunerako duen garrantziaga-

tik, eta Gobernuari ahalmena ematen zaionez, beharrezkoa da epe bat ezartzea; kasu honetan, proposatutako epea aski eta sobera da, gure ustez, xedapen hori edo horiek onesteko eta argitaratzeko.

1. ERANSKINARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

196. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. eranskineko lehenengo definizioa aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke:

“- Ingurumen baimen integratua: ...bermatzeko baldintza jakin batzuen pean ustiatzen uzten duena.” (Eta gainerakoa kentzea).

Zioak: Instalazio baterako emaniko baimenak ezin du ekarri edo ezin da ulertu handitzearako, instalazio berrietarako, balio duenik besterik gabe, nahiz eta horiek toki berean egon eta titular berak ustiatu. Adibidez, proiektuan jasota dagoenez, Castejóngo zentral termikoak baimena dutela, besterik gabe, eta ez dutela inongo ingurumen azterlanik behar ulertu behar dugu?

197. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. eranskinari, definizioei buruzkoari, gehiketa egiteko zuzenketa.

Hurrengo definizioak gehitzea proposatzen dugu: prebentzioaren printzipioa, kontuz ibiltzearen printzipioa eta iraunkortasuna.

Zioak: Foru legearen zioen azalpenean jasotzen denez, garrantzitsuak dira prebentzioaren eta kontuz ibiltzearen printzipioak, eta iraunkortasunari buruz duen jarrera adierazten du; definizioen atalean, ordea, jaso gabe dago, eta uste dugu nahitaezkoa dela gehitzea.

198. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

2 B eranskina aldatzeko zuzenketa.

2 B eranskineko 9. kategoriak izen hau izanen du:

“9. Abeltzaintza”

Zioak: Izenburu berriak hobeki jasotzen ditu kategoria horren barruan dauden jarduerak; izan ere, nekazaritza ustiapenez gain, zenbait hiltegi ere hartzen ditu.

2. ERANSKINARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

199. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

2 A eta 2 B aldatzeko zuzenketa.

2 A eranskineko 4. zenbakidun jarduera, “Animaliak hil edota zatikatzeko hiltegi eta instalazioak, egunean 50 tonatik gora kanal ekoizteko ahalmenekoak”, 2 B eranskineko 9.2 zenbakidun jarduera izanen da.

Zioak: Jarduera horiek, Estatuko oinarrizkoa legediak agintzen duenez, ingurumen baimen integratua eta ingurumen eraginaren ebaluazioa behar dute; beraz, foru lege honetako 2 B eranskinan egon behar dute.

200. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2 A eranskinaren izenburuan –“Ingurumen baimen integratuaren menpe dauden jarduerak”– gehiketa egiteko zuzenketa.

“eta ingurumen eraginaren ebaluazioaren” gehitzea proposatzen dugu.

Zioak: 2 A eta 2 B eranskinetako jarduerak biak behar dituzte, ingurumen baimen integratua eta ingurumen eraginaren ebaluazioa, eta, beraz, eranskin bakar batean bil daitezke edo bi eranskinetan esan daiteke biak direla beharrezkoak.

201. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2 B eranskinari, Nekazaritza ustiapenak atalari hain zuzen, gehiketa egiteko zuzenketa.

Hauek gehitzea proposatzen dugu:

g) 1.500 toki ardi eta ahuntz ganaduarentzat.

h) 12.000 toki untxientzat.

Zioak: Jarduera horiek izan badira, eta jar dai-tezke, baina ez daude foru legean jasota.

202. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2 C eranskinetako M letrari, Komunikazioko instalazioak, gehiketa egiteko zuzenketa.

Beste instalazio mota bat gehitzea proposatzen da: "Telekomunikazioetarako antenak eta haietarako irispideak".

Zioak: Ez dago oso argi instalazio mota horrek eraginik duen edo ez eta zer neurritan duen eragina pertsonengan eta paisaian, eta sartu beharra dago, gutxienez alderdi horiek argi gera daitezen kasuko ingurumen ukipenean.

203. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2 C eranskinen –"Ingurumen baimen integratuaren menpe dauden jarduerak"– gehiketa egiteko zuzenketa.

Bost letra gehitzea proposatzen dugu: Q), R), S), T) eta U). Hona testua:

"Q) Meategi ustiapenetarako proiektuetako legar eta hondar ateratzeak edo bigarren mailako jarduerak edo jarduera osagarriak.

R) 3 B eta 3 C eranskinetan jaso gabeko ibaien dragatzeak, defentsak eta ur-ibilguen zuzentzeak.

S) 3 B eta 3 C eranskinetan jaso gabeko presak, hamabost metroko garaiera baino txikiagoak, kanalak eta altzagarri hidraulikoak.

T) 3 B eta 3 C eranskinetan jaso gabeko arrain-haztegiak, karramarro-haztegiak eta basa fauna kudeatzeari lotutako haztegiak.

U) 1.000 metro baino luzeago izan eta basa fauna libre ibili ahal izatea ekidin dezaketen ehiza-hesiak edo bestelako hesiak."

Zioak: Jarduera horiek lege honek indarrrik gabe uzten duen 229/1993 Foru Dekretuan jasota zeuden. Hala ere, ez dira Legearen eranskinetan jaso.

**3. ERANSKINARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****204. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3 B eranskinaren izenburuan kenketa egiteko zuzenketa.

Izenburutik hau kentzea proposatzen dugu: "hautapen irizpideen aplikazioaren arabera".

Zioak: Ingurumen eraginaren azterlanaren

205. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3 D eranskina kentzeko zuzenketa.

Atal osoa kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Ez duenez Departamentuaren esku egon behar erabakitzea proiektuak ingurumen eraginaren azterlanik behar duen edo ez, eta eranskinak eta azterlan hori behar duten jarduerak ezarrita daudenez, bai eta ingurumen eraginaren azterlanak behar dituen ezaugarriak eta baldintzak, ez dago eranskinaren atal horren beharrik.

206. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3 B F) 6 eranskina kentzeko zuzenketa.

6. atala kentzea proposatzen dugu.

Zioak: 3 C eranskinetako proiektuei buruzkoa da, saiakuntza eta abarrei buruzkoa hain zuzen; eta uste dugu aldi baterakoak izan nahiz ez izan, ingurumen eraginaren azterlana behar dutela.

207. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3 C E) eranskineko –Beste proiektu batzuk–, 2. puntua kentzeko zuzenketa.

Testu guztia kentzea proposatzen dugu, hau izan ezik: “ondoren aipatuko diren proiektuak”

Zioak: Hor aipatzen diren proiektuek ingurumen eraginaren azterlana behar dute, babes bereziko eremuetan edo hezeguneetan dauden gorabehera, nahiz eta, hala bada, arrazoi gehiagorekin.

208. ZUZENKETA**ASKOTARIKO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3 C E) eranskineko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

3 C E) 1. “3 C eranskin honetan zerrendatutako jardueri dagozkien hurrengo proiektuak, bertan finkatutako muga balioetara iritsi gabe, Kontseiluaren basoko hegaztien kontserbazioari buruzko apirilaren 2ko 79/409/EEE eta Kontseiluaren habitat naturalen eta basa faunaren eta landarediaren kontserbazioari buruzko maiatzaren 21eko 92/409/EEE Zuzentarauak aplikatuz izendatutako babes bereziko eremuei, edo Ramsar Ituneko zerrendan ageri diren hezeguneei kalte egin diezaiekeenean:”

Idatz-zatiaren gainerakoak berdin jarraituko du.

Zioak: Natura 2000 Sarean sartutako guneetarako berariazko tratamenduak ez du izan behar soilik gune horietan bertan gauzatzen diren planetarako eta proiektuetarako, baizik eta gune horiek “ukitzen” dituzten plan eta proiektu guztietarako.

209. ZUZENKETA**ASKOTARIKO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3 C A) eranskineko 1. h) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

3 C A) 1. “h) Jabari publiko hidraulikoan zein ibilgu baten polizia eremuan dauden ustiapenak, 79/409/EEE eta 92/409/EEE Zuzentarauak aplikatuz izendatutako babes bereziko eremuei edo Ramsar Ituneko zerrendan sartutako hezeguneei kalte egin diezaiekeenean.”

Zioak: Natura 2000 Sarean sartutako guneetarako berariazko tratamenduak ez du izan behar soilik gune horietan bertan gauzatzen diren planetarako eta proiektuetarako, baizik eta gune horiek “ukitzen” dituzten plan eta proiektu guztietarako.

210. ZUZENKETA**ASKOTARIKO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3 C A) eranskineko 3 a) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

3 C A) 1. a) Ibaien dragatzeak 79/409/EEE eta 92/409/EEE Zuzentarauak aplikatuz izendatutako babes bereziko eremuei edo ur-ibilgu zatietan edo Ramsar Ituneko zerrendan sartutako hezeguneei kalte egin diezaiekeenean, eta erauzitako bolumena urtean 20.000 metro kubikotik gorakoa denean.”

Zioak: Natura 2000 Sarean sartutako guneetarako berariazko tratamenduak ez du izan behar soilik gune horietan bertan gauzatzen diren planetarako eta proiektuetarako, baizik eta gune horiek “ukitzen” dituzten plan eta proiektu guztietarako.

211. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3 C D) eranskineko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“100eko 20koa edo hortik gorakoa den” jarri ordez, “100eko 10ekoa edo hortik gorakoa den” jartzea.

Zioak: % 20eko aldapa jartzeak sekulako higadura esan nahi du, eta espresuki debekatuta behar du beraz; horregatik, % 10 nahikoa dela uste dugu.

212. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3 C D) eranskineko 7. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“100 hektarea” jarri ordez, “10 hektarea” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: 100 hektarea gehiegi da; oso bortitza da aldaketa.

213. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

3 A eranskinari gehiketa egiteko zuzenketa.

E) letran, azpimarratuta ageri diren esaldiak gehituko dira:

E) “Tokian-tokian eremu txikien erabilpena ezartzen duten aipatutako plan eta programak, bai eta udaletako beste hirigintza planeamenduko garapen-tresna batzuk ere, eta aipatutako plan eta programa horietan aldaketa txikiak sartzea, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ingurumenean ondorio nabarmenik izatea litekeena dela erabakitzen duenean banaka-banaka aztertu ondoren, eta erregelamenduz ezarritako irizpideak oinarri hartuta.”

Zioak: Aurreko zuzenketaren berak.

214. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

3 A eranskinari gehiketa egiteko zuzenketa.

A) letrari beste puntu bat, bosgarrena, gehitzea:

“A) 5. Ingurumen eraginaren azterlana behar ez duten udalez gaindiko proiektu sektorialak “

Zioak: Ebaluzioan sartzea eremu garrantzitsuei eragiten dien balizko plan partzialak, xehetasun asko ezartzen dituztenak, udal planak antolamendu egituratzailea bakarrik ezarri duenean eta planean bertan, edo plana onestean, eskatu bada garapen-planeamenduak ebaluazioa izanzen duela; eta, halaber, irizpideen erregelamenduzko garapena modu objektiboagoan eta arautuagoan egin dadila ahalbidetzea.

215. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3 B F) eranskinari, “Beste proiektu batzuk”, gehiketa egiteko zuzenketa.

Daudenei hau gehitzea proposatzen dugu: “250 plaza baino gehiagoko kanpin instalazioak, teleferikoak eta funikularrak”

Zioak: Horrelako proiektuak eta instalazioak badaude edo egon daitezke, eta ingurumen eraginaren azterlana behar dute.

216. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3 A eranskinari gehiketa egiteko zuzenketa.

F letraren aurretik, G bihurtuko baita, beste bat gehitzea; hona F letra berriaren testua: “Industrialdeetako azpiegitura proiektuen antolamendu xehea ezartzen duten planeamendu tresnak”

Zioak: Tresnarik erabilienetako bat izanik, ez da jaso, eta Foru Legean jasotzeko adinako ingurumen eragina du.

217. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3 C B) eranskinari, “Energia,” gehiketa egiteko zuzenketa.

Idatz zati bat, bosgarrena, gehitzea proposatzen dugu. Hona testua: “Biomasa instalazioak, instalazio hidrauliko txikiak, eguzki parkeak, instalazio hidroelektrikoak, eguzki baratzak, instalazio fotoboltaikoak eta antzekoak.”

Zioak: Jarduera horiek ez dira sartu ingurumen eraginaren azterlana behar duten jardueren artean, eta, Nafarroan, instalatzen dira eta instalatzen jarraituko dute; beraz uste dugu hori islatu beharra dagoela.

**4. ERANSKINARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****218. ZUZENKETA****EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4 D eranskina kentzeko zuzenketa.

Zioak: 4 D eranskinean deskribatutako jardueren garrantzia eta arriskua ikusita, jarduera horiei

buruzko txostena egin beharko luke ingurumenaren arloko Nafarroako organo eskudunak.

219. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4 B A) eranskina aldatzeko zuzenketa.

3. puntuari, "20.000" toki untxientzat jarri ordez, "12.000" jartzea.

Zioak: Ingurumen eraginaren azterlanaren beharra jasota dago dagokion eranskiuean, eta horrek ez du esan nahi jarduera sailkatuaren baimena behar denik, baina buruen kopurua koordinatu beharra dago.

220. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4 D eranskinen A letra aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

4 D eranskinen A letra: "Nekazaritzako produktuen biltegiak"

Zioak: Zuzenketaren asmoa da nekazaritzako biltegiak jarduera sailkatuen espedienteetatik salbuesteko aukera ematea baldin eta egoki irizten diren mailak ez badituzte gainditzen, eta hori erregelamenduz zehaztu beharko da.

221. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

4 D eranskina aldatzeko zuzenketa.

A) letra aldatzea proposatzen dugu, hau kentzea hain zuzen: "azalera mugarik gabe"

Zioak: Zuzenketaren asmoa da nekazaritzako biltegiak jarduera sailkatuen espedienteetatik salbuesteko aukera ematea baldin eta egoki irizten diren mailak ez badituzte gainditzen, eta hori erregelamenduz zehaztu beharko da.

222. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

4 D eranskinari, "Jarduera sailkatuetarako udal lizentziaren menpe egon eta aurretiaz Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren ingurumen txostenen behar ez duten jarduerak eta instalazioak", L) eta M) letrak gehitzea. Hona testua:

"L Osasun jarduerak, ospitaleratzea dutenak nahiz ez dutenak.

D) Erregelamenduz zehazten diren irakaskuntza, kulturura, adiministrazio edo erlijio jarduerak.

Zioak: Babes zibilaren ikuspuntutik, beharrezkotzat jotzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta organo eskudunak ziurta dezatela pertsonen segurtasuna erabilera publikoak diren lokal edo instalazioetan, erregelamenduz ezarriko den maila batetik gora beteta daudean.

IDAZPURUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

223. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

V. tituluko I. kapitulua aldatzeko zuzenketa.

Gaztelaniazko testuan, hau jartzen du:

"Legalización de actividades sin autorización de licencia"

Honekin ordeztea proposatzen dugu:

"Legalización de actividades sin autorización o licencia"

Zioak: Ulertezina da.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

224. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 2. ataleko lehenengo lerrokada aldatzeko zuzenketa. Letra etzanez dauden esaldiak gehitzea proposatzen dugu. Lerrokada hori honela geratuko da:

“Espainian ingurumenari zein pertsonen osasunari kalterik eragin liezaioketen jardueren gaineko administrazioaren esku-hartzearen lehenengo arauketa azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuaren bidez onetsitako Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamenduan finkatu zen. Estatuko arauketa horrek, jarduera horientzat ezartzen zuen tratamendu uniformatzailer eta zuzentzaileagatik eta lurraldearen antolamenduko eta hirigintzako tresneekiko zuen koordinazio faltagatik, ez zien erantzunik ematen ingurumenaren eta lurraldearen arloko eskakizunei; beraz, Nafarroan, alboratuta gelditu zen Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legearekin. Foru lege hau, zioen azalpenean argitzen zenez, integratzailea zen, jarduera batek eragin litzakeen ingurumen ondorio guztiak kontuan hartzen zituelako, besteak beste, atmosferaren eta uraren kutsadura, zarata eta dardaren ingurumen eta osasun eragina, eta hondakinen ekoizpen eta kudeaketak sortutakoa, baita horien jardunetik erator litezkeen sute edo bestelako arriskuak ere. Foru lege honekin, jarduera sailkatuen kontrol araubidea gainditu eta zabaldu egiten da, urrats bat gehiago egiten da jarduera sailkatuaren ondoriozko kutsadurari aurrea hartzeari eta hartaz babesteari dagokionez bai eta gai horren arloan

eskudunak diren administrazio publikoen koordinazioari dagokionez ere.”

Zioak: Argi eta garbi uztea Nafarroan alboratuta gelditu zela Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamendua, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuaren bidez onetsi baitzen.

225. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Gaztelaniazko testuan, zioen azalpeneko 2. ataleko hirugarren lerrokadarean amaiera aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko da:

“..Directiva 2001 /42/CE, del Parlamento y del Consejo, de 27 de junio”

Zioak: Zuzentarauaren data zuzentzea.

226. ZUZENKETA


**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 3. ataleko 3. lerrokadaren amaiera aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko da:

“..arautzea den, jarduera publiko zein pribatu guztien kutsaduraren eta atmosferaren, uraren, luraren paisaiaren bai eta biodibertsitatearen gaineko ingurumen eraginaren prebentzio, murrizketa eta kontrol integratuak lortzera begira, horixe baita ingurumena oro har ahalik eta gehien babestera iristeko bidea.”

Zioak: Lege osoa izan nahi badu ere, paisaiaren babesa ez dago jasota ez zioen azalpenean ezta gero ere. Halaber, ez die “hainbat” jarduerari eragin behar, baizik eta ingurumenari eragiten dioten edo eragiten ahal dioten jarduera guztiak.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

